

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-09-30
ASTELEHENA
423. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Oñatiko jaiak abian, nafar banderarekin

Danborrada jendetsua ere egin zuten zapatu gauean | 11



IMANOL SORIANO

Marka berria Intxortan, Elgetako baserritarren azoka egunean | 20



Kooltur Ostegunak berriro, aste honetatik aurrera | 28



Bergarako I. Elektronika Topaketa ederto, bigarrenerako animoso | 29



Kirola eta euskara, eskutik

Harrera ona izan du Bergaran egindako 'Kirola Kalera' ekimenak; euskararen aldeko martxarekin amaitu zen | 24

Euskaraz bizi nahi dut leloarekin egindako lasterketako unea.

JOSETXO ARANTZABAL

Parte-hartze polita eta giro ona, San Migeletan

Oñatin bezala, jaiak izan dira asteburuan Aretxabaletan | 12



Iñaki Perurena. | JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko klubak ere, euskararen alde lanean

Kirolarien Euskara Eguna egin dute | 14

Arrasatear fusilatuen berri jaso du NBEren lantaldeak

Gasteizen egin dute desagerpenen gaineko bilera, hainbat eragilarekin | 4



Bileran egondakoak. | J. RAMON GARAI

SINADURAK

	XABIER LETONA 8
	8 OIHANA ELORTZA
	HORACIO ARGARATE 16
	37 OIHAN VEGA
	IXIDOR SOLUPE 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10
KIROLA 22 | KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

50 tontor eta 88 kilometro egin dituzte Copreciren omenez

Kooperatibako lau langilek egin dute balentria mendian | 27

Ehunka euskaltzalek egin zuen bat zapatuan TopaEgunean, Soraluzen

| 15

ZUMAIAN ORTIZ BIZIGUNEA

2 LOGELAKOAK
170.000 €-TIK
HASITA

3 LOGELAKOAK
240.000 €-TIK
HASITA



ORTIZ BIZIGUNEA Axular Ibiltokia 18

Urria
31

Urriaren 31 baino lehen kontratua sinatuz gero, duxa integral bat opari.

INFORMAZIOA
606 95 75 32
info@inmoloiola.com
www.zumaiانبizi.com

SUSTATZAILEA:
inmoloiola

ERAIKITZAILEA:
ALPINA Y URBIA S.A.

SALMENTA-GUNEA:
Z

Gripearen aurkako txertoa hartzea komeni da birusa agertu baino lehen

- Azaroaren 6ra arte egongo da Osakidetzaaren kanpaina martxan
- Osasun zentroetan edo anbulatorioetan emango dute, aurrez zita hartuta

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Udazkenarekin batera hainbat gaixotasun agertzen dira; horietako bat gripea da. Bada, gripearen agerpenari aurre egiteko, Osakidetza gripearen kontrako txertatze kanpaina abian jarri du. Irailaren 23an hasi ziren txertoak ematen eta kanpainak azaroaren 6ra arte iraungo du.

Osakidetza bost arrisku talde zehaztu ditu, eta txertatze kanpaina horiei zuzenduta dago: 65 urtetik gorakoak; gaixotasun kronikoa duten 65 urtetik behe-rakoak; haurdun dauden emakumeak; osasuneko profesionalak; eta, hegazti-granjetako langileak. Kizkitza Alustiza Oñatiko osasun zentroko erizainak azaldu du osasuneko profesionalak txertoa hartu beharko luketela adineko pertsonekin tratatu zuzena dutelako, eta ondorioz pertsonak kutsa

ditzaketelako. Gaixotasun kroniko moduan hartzen dira bihotzeko, giltzurruneko eta gibelako gaixotasunak dituztenak, diabetikoak eta inmunosupresore tratamendua hartzen dutenak, besteak beste.

Hitzordua hartu behar da

Lehenengo aste honetan oso erantzun ona izan du kanpainak. Jende asko joan da osasun zentroetara txertoa hartzera. Alustizak azaldu du txerto gehien lehenengo bi asteetan jarri ohi dituztela. Txertoa jartzeko hitzordua hartzea beharrezkoa dela nabarmendu du. Behin hitzordua hartuta, osasun-zentrora edo anbulatorioa joan beharra besterik ez dago. Arrasaten, anbulatorioan astelehenetik egubakoitzera emango dute txertoa; horrez gain: gaur, irailak 30, Uri

barriko jubilatuen etxean 12:00etatik 13:30era; eta, bihar, martitzena, Etxaluze eraikinean 12:00etatik 13:30era. Bergaran, osasun zentroan astelehenetik egubakoitzera jarriko dute txertoa, eta horrez gain: urriaren 3an, eguna, Osintxun 10:30etik 11:00etara; eta, urriaren 10ean, eguna, Labe-garaietan 10:30etik 11:30era. Aramaion, Antzuolan, Elgetan, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan anbulatorioa joan beharko dute, astelehenetik egubakoitzera, aurretik zita hartuta. Gatzagarrek Eskoriatzako osasun zentrora joan beharko dute.

Etiketetik irten ezin direnei etxera joango zaie erizaina.

Konplikazio larriak

Alustizak azaldu du txertoa jartzeak saihestu egiten duela gripea hartzea. "Ez bada txertorik har-



Osasun arloko langilea txertoa hartzen. | ARANTZAZU EZKIBEL

KONTXI JAUSORO
ARRASATE



"Urtero hartzen dut txertoa. Diabetikoa naiz eta medikuak gomendatuta hartzen dut. Oso ondo funtzionatzen dit, ez dut griperik hartzen".

MANUEL GARCIA
ARRASATE



"Urtero etortzen naiz, azkeneko 20 urteetan behintzat bai. Eta, aldea nabaritzen dut, orain askoz hobeto nabil. Lehen katarro asko hartzen nituen".



Azken etxebizitzak!!

**Etxe tasatuak
baino merkeago!!!**

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

160.000€

(BEZa ez dago barne)

ORTUZAL PROMOCIONES S.L

**943 76 11 18
943 79 40 00
619 71 82 78**

**ARETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA**

ETXEBIZITZAK:

2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina



KIZKITZA ALUSTIZA | ERIZAINA

"Arrisku taldekoek gripea harrapatuz gero konplikazio larriak izan ditzakete"

Kizkitza Alustiza Oñatiko anbulato-rioko erizainak azaldu digu zer den gripea eta ze sintoma dituen. Arris-ku taldean daudenek txertoa hartu beharko luketela nabarmendu du. **Zeresango zenieke txertoa jartzen ez dutenei?**

Komeni dela, gaixotasun kronikoa dutenek edo 65 urte baino gehiago dutenek txertoa hartzea. Ahulagoak dira, eta gripea harrapatzen baldin badute konplikazio larriagoak izan ditzakete.

Jendea animatzen da txertoa hartzera?

Jendea etortzen da, Oñatin batez ere. Lehenengo aste honetan jende asko etorri da. Oñatin, beste urte batzue-tan %70 inguru etorri izan da txertoa jartzera.

Etiketarik irten ezin direnek zer egin behar dute?

Euren etxeetara joaten gara, ez da arazorik izaten. Errola bat daukagu, eta horren arabera badakigu



A.E.

zenbat diren euren etxeetan dauden pertsonak. Arantzazura, komentue-tara, etxeetara... joaten gara.

Arrisku taldean ez daudenek har dezakete txertoa?

Bai, badute aukera txertoa hartzeko baina txertoa euren erosi beharko lukete.

Txertatze kanpaina honetan murrizketarik nabaritu dituzue?

Ez, txertatze kanpainen ez. Beste urte batzuetan haina txerto kanti-tate ditugu eta txertatzera datozen denak txertatzen ditugu.

Zer da gripea?

Gaixotasun infekziosoa da, oso kutsa-korra dena. Birus batek eragiten du, eta birusa aldatu egiten da urtetik

urtera. Komeni da argitzea, gripea eta katarroa direla berdinak; hortaz, txertoa hartuz gero katarroa harrapa dezakegu. Gainera, katarroaren aurkako txer-torik ez dago.

Nola sendatzen da?

Batez ere lasai egoteko eskatzen diegu, egun batzuk etxean egon daitezela. Sintomak gutxitzeko antiter-mikoak eta analgesikoak, eta likido asko edatea.

MARIA PILAR LARRAÑAGA
ARRASATE



"Bai, urtero jartzen dut. Familian bronkioetako arazoak izan ditugu, eta horregatik komeni zait txertoa jartzea, hobeto ibiltzen naiz".

ELIECER GALLEGU
ARRASATE



"Orain dela 7 urtetatik hartzen dut, eta aldea igarri dut. Lehen udaberri eta udazken txarrak izaten nituen. 65 urte bete aurretik hasi nintzen jartzen".

JUANITA AGIRRE
ARRASATE



"Badira sei urte txertoa jartzen dudala. Nik uste dut lehen baino gutxiago hartzen dudala, behintzat ez dut griperik harrapatzen".

tzen samurragoa da gripea harra-patzea. Hala ere, ez du esan nahi txertoa jarritz gero ez duzula gri-perik hartuko. Birus oso aldako-rra da eta har dezakezu, baina sintomak txikiagoak dira edo ez dira hain larriak". Gaineratu du arrisku taldean daudenek txertoa jarri beharko luketela, pertsona ahulagoak direlako, eta gripea hartuz gero euren gaixotasunaren ondorioz konplikazio larriak izan ditzaketelako.

Gripearen sintomak

Gripe gaixotasun infekziosoa da, oso kutsakorra dena eta goi-ko arnasbideetan eragiten du. Gripearen birusa aldatu egiten da urtetik urtera, horregatik txertoa ere aldatu egiten dute. Gripearen sintomak dira: sukar altua, buruko eta hezurretako mina, arnas estua... 5 eta 7 egun bitartean irauten du, eta osa-tzeko atseden hartzea gomenda-tzen dute.



iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Arrasatear fusilatuen berri eman dute NBE

Eragindako Desagerpenen gaineko Lantaldearekin izan da ordezkari bat

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Madrilatik eta Bartzelonatik pasa ostean –Sevillan ere egon dira–, Gasteizen izan ziren egubakoitzean Nazio Batuen Erakundeko Eragindako Desagerpenen gaineko Lantaldeko kideak. Oroimen historikoaren alde lanean diharduten hainbat taldetako –Goldatu, Lau Haizetara Gogoan, Euskal Memoria, Egiari Zor...– ordezkari batekin egin zuten bilera. Eta NBEren lantaldearekin bilera egin zuten 40 lagun artean ziren Intxorta 1937 kultur elkarte kideak eta altxamendu faxistaren ondorioz fusilatutako Isidoro Iturbe eta Juan Bengoa arrasatearren alabak.

Bileran, 1936ko urria eta azaroa artean indarrez desagerrarazi zituzten Arrasateko 28 herritar zibilei gertatutakoaren gaineko azalpena egin zuen Intxorta 1937 kultur elkarte Juan Ramon Garaik; ondoren, Julene Iturbek eta Jaione Bengoak euren aiten atxiloketen eta fusilamenduaren gainekoak kontatu zituzten, eta adierazi zuten oraindik gaur ez dutela haien gorpuzkinen berririk.

Ordezkaritza debagoiendarrak jakitera eman duenez, Ariel Dulitzky legelari argentinarra buru zuen NBEko taldeak adi entzun zituen bi orduz esandako guztiak. Dulitzkyk, bere aldetik, azaldu zuen bere taldearen egitekoa dela partikularrek edo Estatuak eragindako askatasun-gabeteak aztertzea, horien arduradunek gertatutakoa ikertu edo horren berri ematen ez duten kasuetan. Batzordearen jarduteko era da estatuei exijitza desagerpenok argitzeko egiten ari



NBEko lantaldearekin Gasteizen egindako bilerako une bat. | JUAN RAMON GARAI

ESANAK

"Oraina da, ez iragana; delitua hor dago, dena argitu arte"

ARIEL DULITZKY | NBE-KO KIDEA

diren lanaren gaineko informazioa –ezin dute gertatutakorik epaitu, ez zigorrik ezarri–. Gertatu zenaren berri zehaztasunez eta gorpuzkinen kokalekua familiei jakinarazi arte kasuok ez dituztela artxibatuko adierazi zuen Dulitzkyk.

Hala ere, bileran ezagutzera eman zenez, badira irizpide desberdinak lantaldeak aztertu beharreko garaiaren gainean. Berez,

1945etik aurrerako kasuekin egiten dute lan, urte horretan sortu zelako NBE eta, diotenez, ez dago kielako erakundearen sorreraren aurreko gertaerekin jardutea. Baina Dulitzkyk zioen bere eta lantaldeko beste kide batzuen iritzia dela "delitu jarraitu" baten aurrean gaudela eta, ondorioz, gerra hasieratik aurrerako garaia hartu beharko litzatekeela aintzat. Aitzitik, Estatuak ez du nahi, Dulitzkyren arabera, 1945etik atzera egitea.

NBEko lantaldea gaur –astelehena– da plazaratzekoa egindako bileretatik ateratako ondorioak, baina Debagoieneko ordezkari bat da, Dulitzkyren hitzak entzunda: "Ez da iraganezko kontua, oraindikoa baizik; delitua hor dago gertatutakoa argitzen ez den bitartean". Hala esan omen zien desagerpenen lantaldeko kideak.

Makroepaiketen aurka mobilizatzeko deia egin du Libreko Oñatin

J.I. | OÑATI

Bi epaiketa handi hasiko dira datozen asteetan Espainiako Auzitegi Nazionalan: urriaren 14tik aurrera 40 gazte epaituko dituzte Segiko kide izatea leporatuta, sei urteko kartzela zigor eskariarekin, bakoitzarentzat; hilaren 17an, berriz, *Herriko tabernen auzia* hasiko dira epaitzen.

Epaiaketa bakoitzaren lehen egunean elkarretaratzeak egingo dituzte Oñatin, 19:00etan plazan. Hala iragarri zuten Libre ekimeneko kideek egubakoitz iluntzean egindako agerraldian. Urriaren 26an Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deia ere egin zuten: "Horrelako bidegabekeriaren aurrean, ezinbestekoa da herri gisa erantzun sendo bat ematea eta gure desadostasuna erakustea".

Libreko kideek gogor salatu zuten Estatuaren jarrera: "Euskal herritarrok behin eta berriz bakearen aldeko apustua berretsita eta gatazkaren konponbiderako nahia erakutsi arren, Estatuak berriro ere erreprosiorearen aldeko apustua egin du".

40 gazteak "beraien militantzia politikoagatik" epaituko dituztela adierazi zuten, "belkurra zabaltzeko helburuarekin". Beste auzian, berriz, Bata-suneko 37 militante eta 110 Herriko taberna eta elkarte daude prozesatuta. Libreko kideen arabera Oñatiko lokalak "behin betirako" enbargatu ditzakete. Salatu zuten auziak aurrera jarraitzen duela, "nahiz eta batutako frogetan ETA-KAS-Ekini egindako ordainketa bakar bat ere ez den ageri".



Oñatiko Libreko kideak, egubakoitzeko agerraldian. | JULEN IRIONDO

2011n Bergaran pisu-kidea erail izanagatik, errudun

Domingos F.G. akusatuak jasoko duen zigorra datozen egunetan jakinaraziko du epaileak

J.I. | BERGARA

Eraiketa egotzi diote Domingos F.G. akusatuari, eta epaimahaiak dio hiltzaileak aprobetxatu zuela, gainera, biktimak gaitasun fisikoak mugatuta izatea. 12 urteko kartzela zigorra eskatu dute Fiskaltzak eta akusazio partikularrak; defentsak, 10 urtekoa. Epaileak datozen egunetan emango du sententzia.

Aurreko astean egin zuten Gipuzkoako Auzitegian 2011ko martxoko Bergarako gertakarien epaiketa. Epaimahaiak frogatutaz jo du hiltzeko asmoarekin erasotu zuela biktima 51 urteko Domingos F.G.-k, aprobetxatuz, gainera, gaixotasunagatik, ebakuntza bategatik eta lasaigarriak hartu izanagatik, erantzun-gaitasuna gutxituta zuela Miguel E.R. 46 urteko pisu-kideak.

Herri epaimahaiak ontzat hartu du prozesuan akusazioek –batez ere Fiskaltzak– emandako bertsioa: etabaida gogorra izan zutela pisu-kideek bizitoki zuten San Antonio kaleko 8. zenbakiko etxebizitzan; borrokan hasi eta akusatuak heriotza eragin ziola biktimari. Laban bat eta mozteko erabiltzen den beste tresna bat ei zituen gertaeren unean. Gero, Deba ibaira bota zuen gorpua.

Akusatuaren argudioak, berriz, ez ditu onartu epaimahaiak, bat izan ezik: hildakoak ez zituela ordaintzen zegozkion gastuak, egongelaren jabe egin zela eta etxeko sarriala aldatu ere egin zuela, pisukideari giltzarik eman gabe, akusatuaren haserre eraginez horrela.

Tuterako ikastolaren egoera larria, Antzuolan

Ahalegin handia egiten dute Erriberan euskarazko hezkuntza nahi duten familiek. Argia Ikastolak berak ere egoera larria bizi du, eta hori azaltzera etorri ziren atzo Tuteratik Antzuolara, MU-ko ikasleek egindako *Badira bagara* dokumentalarekin. Argia laguntzeko: 3035 0102 39 1020046142 (Laboral Kutxa).



JOSETXO ARANTZABAL

Pello Zabala | Eguraldian aditua

"Nik beti esaten dut zera: jakin behar da aireari begietara begiratzeko"

- Hego haizeak epeltasuna ekarriko du udazkenara
- Borraskatxoak ere izango ditugu, giro bustiarekin

UBANE MADERA | ARANTZAZU

Astebete daramagu udazkenean. Eguraldi onarekin hasi dugu urtaro berria; eta aurrea zela egingo duen jakin guran jo dugu Pello Zabalarengana; gurean (eta gure mugetatik kanpo ere bai) tenpora kontuetan erreferente den frantziskotarrarengana.

Sargori hasi dugu udazkena (oraingo asteburua izan ezik) noiz arte segiko du bide beretik?

Noiz arte, ez dakit, baina udazkenean behin eta berriz itzuliko dela, uste dut baietz; haizearen eraginez. Izan ere, baserri muntutik begiratuta (guk hortik begiratzeko diogu eguraldiari, mapetatik baino gehiago, horiek aldakorrago azaltzen baitira) haizearen eraginek jarraipena izaten dute, luzaroan izan ere.

Nik uste dut baserrian hazi denak behintzat udazkenari begiratu diola gehienetan kariñoarekin, girorik onenetakoak hortxe gertatzen baitira, edozein gauza biltzeko: artoak eta babak, intxaurrak laster, gaztainak, sagarrak... Beraz,

memorian ditugu horiek ez direla euri egunak.

Agian kaletik begiratuta, dezentetan entzuten dugu: *Gaur udako giroa, gaur ez da udazkenekoa, ez dago euririk ere.*

Baina nork dio udazkenekoa euri giroa dela? Ematen du nonbaiten ikasi dugula eguraldia garbi-garbia denean udakoa dela; erdizka denean, udaberrikoa eta udazkena ilun samar eta euritsua dela; eta ez.


Inportantea da hego haizearik ez dugula izan duela ja hamar hilabete; eta orain agertu denean naturak berak ere igarri duela: hostoak hasi dira kolorez aldatzen... eta hegomendebalaren eragina izaten da egun batzuetarako; gero

"Haizeari begiratu zaio beti baseritik: ze haize, orduan badakigu ze giro"

berriro ere itzultzen da beste egun batzuetarako... Eta baserri girotik beti begiratu zaio haizeari. Ze haize, orduan badakigu ze giro.

Hego haizea badago, tenperatura gozoak izango dira, eta ez du euririk ekarriko. Itsasokoa badugu, badakigu zer datoren: hezetasuna. Eta iparraldetik badator, ba hotza.

Horrenbestez eta laburbilduz? Tarteka etorriko dira hego haize boladak, eta horren bueltan izango ditugu barealdiak euri gutxi edo batere eurirekin; eta borraskatxoak ere etorriko dira, baina batzuetan etortzen dira indarra galduta. Horien jiran, bai, egun batean edo bitan sar daiteke itsasoko haizea. Horixe izan genuen, justu, aurtengo tenporetako lehen egunetan, 18an eta 19an. Lainoa sartuta (euri zaparradarik gabe haizerik apenas zegoelako) busti-giroa...baina gero horren buelta izaten da hego mendebala. Hauxe da udazken giroa.



Pello Zabala Arantzazu. | IMANOL BELOKI

Baina Pello, diozuna fidagarria da? Ze, uda aurretik meteorologia agentziek iragarri zuten urtetako udarik hotzena izango zela, eta ez zuten asmatu...

Hasi ziren epe luzerako iragarpenak egiten, nik uste ikusita tenporek horretarako bidea ematen zutela; eta hiru urtetan probak egiten ibili eta gero, ikusi dutenean ez dela betetzen, errietak datoz.

"Tenporak ezin dira erabili egun zehatzetako eguraldia jakiteko"

Akaso hortik dator batzuek tenporekiko duten kontraktasuna?

Izan liteke. Eta ematen duten arrazoiak sinpleak da: tenporak ez direla zientifikoak. Beno, nik esango nuke ez direlako zientifiko mailan begiratu. Ze hainbeste mendetako esperientzia zerbaitengatik izango da. Orain, baserrian zer dute makroskopioen bat eguraldia ikusteko? Ba ez. Bere mapak bestelakoak dira. Adibidez, mandeulia etorri da...horiek ez dira etortzen neguan, eta maiatz busti hartan hori ikusiz gero... zientziak ez al dio eragin horri hortxe agertzen? Ba zertu, zergatik etorri den mandeulia. Eta ikusiko zuten uda bazetorrela, eta beroa, gainera.

Nazioarteko 200 ikasle inguruk Mondragon Unibertsitatean egingo dute ikasturtea

Eguenean egin zieten ongi-etorria ikasle horietako 105 gazteri, Arrasaten

M.B./U.M. | DEBAGOIENA

Babelgo dorrearen antzera, hizkuntza eta herrialde askoren topaleku bilakatu zen egun arratsaldean Arrasateko Eskola Politeknikoa. Nazioarteko 200 ikasle inguruk egingo dute aurtengo ikasturtea Mondragon Unibertsitatean eta ikasle horiei ongi-etorria emateko harrera-ekitaldia egin zuten.

Holanda, Mexiko, Guatemala, Kanada, Japonia, Finlandia, Alemania, Kolonbia eta Belgikatik etorritako 105 ikasle batu ziren, hain justu ere, egueneko ekitaldian; jatorri eta hizkuntza oso ezberdina duten ikasleak dira, eta horregatik, ingelesa izan zen ekitaldi osoan erabili zuten ekitaldia.

Familia argazkia

Ongi-etorri ekitaldian familia argazkia egin zuten lehenengo

eta ondoren berba batzuk egin zizkieten ikasle etorri berriei Josu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektoreak eta Jon Altuna errektoreordeak. Besteak beste, Mondragon kooperatibaren inguruko funtsezko hitzaldia egin

zieten, Mondragon Unibertsitatearen oinarriak hobeto ezagutzeko.

Tradizio luzea

Horrekin batera, unibertsitateko ordezkariak gogora ekarri zuten

Mondragon Unibertsitatearen nazioarteko bokazioaren atzean unibertsitate-tradizio luzea dagoea, 1972an Goi Eskola Politeknikoan abiatu zena.


Harrezkero 45 urte pasatu dira, eta bidean unibertsitatearen nazioarteko bokazioa sendotu eta aberastu egin dela azpimarratu zuten. "Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile askok, nigandik hasita –ekarri zuen gogora Josu Zabala errektoreak, sasoi hartan esperientzia hori bizitzeko aukera izan genuen, ikasleen mugikortasuna ohiko bilakatu baino

askoz lehenago". Hain zuzen, garai hartan hasitako bidea erabakigarria izan zen unibertsitatearen eta bere prestakuntza ereduaren garapenerako. Horri esker, ikasleek nazioarteko esperientzia bereganatu ahal izan dute, bestelako diziplinetan espezializatu eta ikuspegi osagarri batetik sakondu.

Gero, GOIER

1972ko nazioarteko lehen esperientzia haien ondoren, GOIER saila eratu zen unibertsitatean, eta horren bidez nazioarteko esperientzia modu egituratuan kudeatzen du Mondragon Unibertsitateak. Horrek guztiak unibertsitatearen nazioarteko ibilbidea ahalbideratu du eta horren emaitza dira, aurtengo ikasturtea gurean egingo duten atzerriko ia 200 ikasleak.

Eta unibertsitateak helarazitako datuen arabera, GOIER sailari esker, ikasketak unibertsitatean gauzatu dituzten 806 lagunek goi mailako tituluak eskuratu dituzte nazioarteko unibertsitateetan, eta haietako asko, gainera, doktore eta ikerlari dira.



Familia argazkia atera zuten Eskola Politeknikoan. | ANDER LARRAÑAGA

Ekarpenak egoki saldu ez ziren aztarnak daude

L.K. | ARRASATE

Kontsumobideko zuzendariak "aztarnak" ikusi ditu Eroskiren eta Fagorren ekarpen preferenteen salmenta "ez zela baldintza egokietan egin zenbait kasutan". Elena Untzuetak Legebiltzarrean esan zuen hori astelehenean, Kontsumobide ekarpenak erosi zituzten lagunen 833 erreklamazioen gainean erakunde hori egiten dabilen azterketaren aurre-balantzea emateko agerrialdian.

Bitartekaritza ez da bukatu

Unzuetak "diskrezioa" eskatu zuen, Kontsumobideren bitartekaritza-lana oraindik ez delako bukatu.

Bere esanetan, "ez dago audio edo bideo probarik" 833 kaltetu horien esanak babes-teko, baina "aztarnak" bai, kasu batzuetan. Kasuen % 81en, ekarpen horiek aurrez bezeroak eskatu barik eskaini zitzaizkien banketxean. Kontsumobidera jo duten kaltetuen % 26k 65 urte baino gehiago dute, eta % 80k 25.000 euro baino gutxiago inbertitu zuen.

Elektraindarra % 3,1 garestiagoa izango da martitzenetik aurrera

Bihartik, urriak 1, aurrera, elektraindarra % 3,1 gehiago ordainduko dugu, gutxienez urte bukaerara arte. Joan den martitzenean egin zuten energiaren salneurriaren enkantea. Hori izango da elektraindarraren laugarren garestitzea aurretik. Gobernuak legez erregulatzen duen tarifaren zatiak izoztuta jarraitzen du.



Lan-jardunaldia egin zuten martitzenean IK4-Ikerlanen; argazkian, parte-hartzaileak. | GUK

Baterien gaineko proiektu estrategikoa IK4-Ikerlanen

Europako Batasunak babestutako Batteries 2020 proiektua martxan jarri dute goi-mailako ordezkariak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

IK4-Ikerlan ikerkuntza zentroan, goi-mailako lan-jardunaldia egin zuten martitzenean, eta Europako Batasunaren babesa duen Batteries 2020 proiektua martxan jarri zuten gero. Arrasateko ikerkuntza zentroa da proiektu horren liderra.

Sistemas de almacénamiento eléctrico: visión estratégica delako lan-jardunaldian, elektrizitatea gordetzeko I+G-k ematen dituen aukerak aztertutako enpresa eta ikerkuntza zentrok eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Besteak beste, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuorde Estibaliz Hernaez; Leclanche, Abengoa, Umicore eta FIAT enpre-

setako ordezkariak; Europako bateria-ekoizleen Eurobat elkarteko ordezkariak; eta EnergiGUNE CICeko ordezkariak batu ziren Arrasaten.

Bateriak aprobetxatu

Lehenengo, energia gordetzeko baterien merkatuaren gaineko ezagutzak konpartitu zituzten adituek: balio-katea, materialak eta etorkizuneko aukerak. Energia-metatzearen gaineko ikerkuntzak energia berriztagarrietan eta automobil elektrikoetan eragiten du, besteak beste.

Ezagutzak elkarbanatzeaz gain, Batteries 2020 proiektua martxan jarri zuten. Helburua da automobil elektrikoaren baztertutako bate-

riak, dagoeneko horretarako erabili ezin direnak, berriz erabili energia berriztagarriak metatzeko edo gordetzeko.

Izan ere, lan-jardunaldi horretan izan ziren erakunde gehienak Batteries 2020 proiektuko kideak dira. Europako Batasunak babesten du proiektua; batetik, automobil elektrikoa bultzatzeko, eta bestetik, automobilendako dagoeneko balio ez duten baterien potentziala aprobetxatzeko estrategiak diseinatzea beste inork baino lehenago. Batteries 2020 inizatibak hiru urte iraungo du eta 8 milioi euroko aurrekontua izango du; zati baten, Europako Batasunak finantzatzeko du, VII. Marko-Programaren bidez.

Zehazki, baztertutako bateriak hobetu nahi dira, gaur egungoak baino % 30-40 kapazitate handiagoa emanaz duten bolumenarekiko, eta fidagarriak izango direla bermatu. Horrez gain, gaur egun merkatuan dauden bateriek baino bi aldiz gehiago irauteko gai egin nahi dituzte.

Energia berriztagarrietarako

Bestalde, energia berriztagarri instalazioetan baztertutako bateriak energia-metatzaile gisa erabiltzeko estrategiak ikertuko ditu Batteries 2020k. Gaur egun, aerosorgailu batek energia sortzen duenean, hura ez da pilatzen, zuzenean sare elektrikoera irauli baizik.

Batteries 2020 proiektua

- Arrasateko IK4-Ikerlan ikerkuntza zentroa da Batteries 2020 proiektuko liderra.
- Puntako enpresa eta erakunde askok parte hartzen dute, eta Europako Batasunak diruz laguntzen du.
- Helburua da automobil elektrikoetarako dagoeneko balio ez duten bateriei bigarren bizitza bat ematea.
- Gaur egungo bateriek baino kapazitate eta iraupen handiagoa eman nahi zaie.

DATUA

8

MILIOI EURO

Batteries 2020 proiektuak 8 milioi euroko aurrekontua du, eta horren zati bat Europako Batasunak ipiniko du.

Sozietate Zergan % 11,8 ordaindu dute enpresek, arauak agintzen duenaren erdia

Zerga horren araua urtea bukatu baino lehen tramitatu nahi du Aldundiak

L.K. | ARRASATE

Sozietate Zergaren kanpainako emaitzak ematearekin bat, Foru Aldundiko arduradunek araudia aldatzeko asmo zehatzak agertu zituzten joan den eguaztenean.

Aitorpena egin zuten enpresa guztietatik (22.247) erdiek baino gehiagok ez zuten irabazirik izan, eta izan zituztenek (6.819) % 11,8 ordaindu zioten, batez beste, Ogasunari: denetara, 1.152 milioi pasatxo aitortu zituzten eta 135,5 milioiko zergak ordaindu zituzten. Gogoratu behar da Gipuzkoan, enpresendako tipo nominala % 28

dela; enpresa txiki eta ertainendako, % 24; eta kooperatibendako, % 20; baina, enpresendako bereziki dauden hainbat dedukzioekin, enpresek Sozietate Zergan ordaintzen dutena askoz gutxiago da.

Arau berria, Batzarretara

Zerga hori erreformatu nahi du Foru Aldundiak, eta horretarako, Batzar Nagusiek egin zuten txostenarekin bat, Sozietateen Mozkinen gaineko Zerga delakoa egin du eta urtea amaitu baino lehen Batzar Nagusiek onar dezaten nahi dute arduradunek.

Horrekin, gaur egungo araudiak dituen "zirrikituak itxi" nahi ditu Aldundiak; horixe esan zuten eguaztenean Itziar Miner Zerga eta Finantza Politikako zuzendariak eta Xabier Olano Ogasuneko zuzendariak. Olanoren esanetan, "indarrean dagoen araudia enpresa handien mesederako egituratuta dago, nahiz eta Gipuzkoan enpresa txikiak eta ertainak izan ehun produktiboaren oinarria. Irabazi handienak dituzten 10 sozietateek 213,8 milioi ordaintzen dituzte, irabazien % 6,2".



Ogasun diputatua eta hezkuntza arduradunak, astelehenean. | GFA

Zergen gainean ikasiko dute DBHn

Gipuzkoako Ogasunak eta hezkuntza alorreko arduradunek zergen gaineko heziketa programa bat martxan jarriko dute DBHn, astelehenean sinatu zuten hitzarmenaren bidez. Datorren urtean zerga heziketari buruzko unitate didaktikoa erabili ahal izango dute ikastetxeek. Sinatzaileek konpromisoa hartu dute heziketa programa gutxienez haien hezkuntza sareko ikastetxe batean ezartzeko.

Joseba Villarreal | ELAko Batzorde Eragileko kidea eta Negoziazio Kolektiboko arduraduna

"Lan-erreformak oraindik ere ematen digu lan baldintzak bermatzeko aukera; balia dezagun"

- Ultraaktibitatea uztailaren 7an bukatu zen, eta askotariko egoerak sortu dira ordutik
- ELAko kideak enpresaz enpresa hitzarmenak egiteko beharra azpimarratzen du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

ELAko Batzorde Eragileko kidea eta sindikatu horretan Negoziazio Kolektibo saileko arduraduna da Joseba Villarreal. Bere esanetan, ultraaktibitatea bukatu zenetik "enpresa gehienek estrategia berbera izan dute: langileei gutunak bidali".

la badira hiru hilabete ultraaktibitatea bukatu zela. Euskadiko langileen egoera zein da?

Kontuan hartuta ultraaktibitatea dela norberak lan baldintza berberekin jarraitzea beste hitzarmen batek iraungitakoa ordezkatzeko duenera arte, legeak hori aldatu du, eta langileen askotariko egoera dute: gutxienei, lan baldintzak aldatu zaizkie; guztiei iragarri zaie aldatu egin daitezkeela datozen hilabeteetan; gehienek baldintza berberekin jarraitzen dute soldatan, kategorian, lanorduetan, egutegian... eta beste gauza batzuetan ez; eta, edozein kasutan, legezko bihurtu da hainbat enpresatan kontratatzen den jende berria beste baldintza batzuetan dagoela. Hori da ondorio garbiena eta bat-batekoa: diskriminazio legala langileen artean.

Denadela, hitzarmen batzuek badaukate klausula bat, eta horren arabera, hitzarmen berria egin arte, hitzarmen zaharrak indarrean jarraituko du. Zenbat hitzarmenek daukate klausula hori?

Banaka batzuek bai, baina gehienak beste egoera baten daude. Batzuen hitzarmenak oraindik indarrean daude; beste batzuen kasuan, hitzarmenaren iraunaldia bukatu da eta ultraaktibitate horrek beste urte bat irauten du. Beste batzuek urte hori ere pasa dute. Eta beste batzuek enpresa-hitzarmenak dituzte eta euren baldintzak eurek erregulatzen dituzte enpresa mailan.

Gipuzkoan, 50.000 langile inguru dago metalgintzan, baina hortik parte batek enpresa-hitzarmenak dituzte eta lan baldintzak bere enpresan erregulatu dituzte. Lan erreformak berari aurre egiteko ematen duen aukera bakarra da zure enpresan hitzarmen bat osatu eta zure baldintzak bermatzea; edo, sektore-hitzarmena oinarri hartuta, hori hobetzen duen hitzarmen bat egitea.

Enpresaren arabera, beraz, egoera desberdina izango da, ezta?

Denetarik dago. Krisian egoteak ez du esan nahi enpresa guztiak gaizki daudenik edo dirurik irabazten ez dutenik. Sindikatu batek duen inplantazioak ere eragiten du. Patronalak ez digu gure arazoa konponduko. Geratzen zai-

guna da antolatzea lan zentroetan eta horiek erreformatik libre uztea, haren eragina gure enpresaren atetik kanpo uztea. Horretarako, organizazioa, konfrontazioa eta mobilizazioa beste alternatibarik ez dago.

Langileen aldetik badago horretarako jarrera?

Egoera konplikatua da, eta ulergarria da hori, denok garelako langile eta denok dakigulako nola baldintzatzen duen bakoitza bere egoera pertsonalak. Jendeak beldurra dauka, eta alternatiba askorik ere ez dago. Baina hala ere, guk aurten 160 hitzarmen berriak gora egin dugu enpresatan; erresidentziatan ere hiru falta dira lan hitzarmenak egiteko, baina 80tik gora egin dugu. Badakigu lan zaila izango dela, patronalak ez duela frenorik izango eta Gobernuak ez dizkiola mugarik jarriko, eta prest gaude borrokarako.

Guk hitzarmen sektorial probintzialak sinatu ditugu, baina lan erreformak bigarren maila baten jarri ditu. Lehen, Gipuzkoan, metalean, bateren batek enpresa bat ireki nahi bazuen, hitzarmen hori gutxienezkoa zen. Orain, erreformarekin, etor daiteke Madrilgo enpresa bat bere hitzarmenarekin, eta 300 euro gutxiago ordaindu. Baina erreformak oraindik ere enpresetan gure lan baldintzak defendatzeko aukera ematen digu; beraz, baliatu dezagun utzi diguten esparru hori.

Uztailaren 7an urtea bete zen lan erreforma indarrean sartu zela. Nolako urtea izan da?

Urte gogorra izan da, eta lan baldintzak behera botatzeko erabili du patronalak. Enplegua ez da sortu, eta desagertu ere egin da. Krisian, batzuek tunelaren bukaran argia ikusten dute, eta guk, bukaera bakarrik. Krisiak berdin jarraitzen du eta lan erreforma batek sekula ez du enplegurik sortzen, lan merkatua prekarizatu baizik, eta hori da gertatu dena.

Zelan jokatu dute enpresek?

Estrategia orokorra izan da langileei gutuna bidaltzea, hiru gauza esanez: alde bakarrez lan baldintzei eutsiko zietela, denbora jakin batez; gai batzuetan, beste hitzarmen baten erreferentzia jartzen zutela, sektorearen arabera; eta hirugarrena, larriena, uztailaren 7tik aurrera kontratatuko zituzten langileek beste lan baldintza batzuk izango zituztela. Erreforma zuzenean aplikatzen jo dute batzuek.

Eta Espainiako Gobernuak erreformak egiten jarraitzen du... Orain



Joseba Villarreal. | LEIRE KORTABARRIA

"Lan erreformak legezko bihurtu du langileen arteko diskriminazioa"

"Merkelena, batez ere, komunikazio aldeko arrakasta izan da"

"Ekintzailatza ondo dago, baina ze laguntza dute pertsona horiek?"

gutxi, kontratu-eredu kopurua murriztu du. Ze ondorio ditu horrek?

Aurreko erreformak utzi dituen hutsuneak tapatzeko behar beste erreformak egingo dituzte. Prekariatatea normala den lan merkatu baten, kontratu desberdinak egotearen baldintza desberdinak egongo direla planteatzeak ez du zentzurik. Kontratuaren izena izen bat da.

Merkelek hauteskundeak irabazi eta gero, pentsatzekoa da erreforma gehiago etorriko direla.

Bai, Merkelek garbi esan zuen zapatuan bertan, Europari eta hego-Europako gizajoei laguntzen jarraituko diela baina murrizketekin aurrera jarraitu behar dutela. Merkelek arrakasta lortu du komunikazio aldetik ere lortu duelako, ez Alemaniako langileak hemengoak baino hobeto daudelako. Alemanak entzuten dabilta Alemaniak kontrolatzen duela dena eta eurak besteak

baino pixka bat hobeto daudela, baina Merkelena adierazle garbia da: lehen agintaria da Europan, krisian hauteskundeak egin dituenak eta berriz irabazi, eta inoiz baino gehiago aterata.

Berrikuntza eta ekintzailatzaren aldeko mezuak nola baloratzen dituzue?

Beharrezkoa eta ona da ekintzailatza, baina politikoei eurek neurriak ez dutenean egiten dute horren alde. Ze laguntza dituzte ekintzaileek? Ez dago finantziatorik. Kutxabank, EAJ eta Bilduk babestutako erakundeak, ez du enpresentzat finantziatorik ematen, eta ematen dena oso garestia da. Sortu behar diren enpresendako alternatiba baldin bada ekintzaileei tarifa laua ematea eta autonomoen tarifa ordaintzea, Gizarte Segurantzak duen arazoa ez da konponduko, izan jendea lanean egongo delako baina sarre- rari ez delako egongo.

Gobernuek euren eskumenean dauden neurriak benetan erabili beharko lituzkete ganorazko enplegua sustatzeko, eta Berrikuntza, Garapen eta Ikerkuntza kontuak behar bazala erregulatu, gaur egun hori dena Ogasunari gutxiago ordaintzeko bakarrik erabiltzen delako: Sozietate Zergan, tipo nominala % 28 da, eta errealtatean % 7ra eta, kasu batzuetan, % 4ra ere ez da iristen. Ibex indizeko enpresa handienek irabazien % 4a ere ez zuten eman iaz, kenkariak direla-eta. Beraz, ez da ulertzen: ekintzaileei autonomoen kuota merkeagoa eskaintzen bazaie eta hilabete batzuetan ez badute ezer ordaindu behar eta, bestetik, irabazten duten enpresek ez dute ezer ordaintzen eta, azkenik, hemen iruzur egiten duena ergela da... Politika fiskala erabili beharko lukete enplegua era zintzoan suspertzeko.

Egoera horrelakoa izanda, ezkutu-ko ekonomia hazi egin da?

Bai, beti egon da eta orain ere badago. Ekonomia hori izan behar da, ez badago beste alternatibarik. Emakume asko konturatu dira ezingo dira erretiratu, beraz, zergatik kotizatu beharko dute lau orduko garbiketa? Zeren truke gabiltza kotizatzen? Lanaldi partziala ere bultzatu behar da, borondatezkoa bada eta norberaren errealtate baten zerbitzura badago; baina hori ez da aukeraren dagoen zerbait, sektore askotan aukera bakarra da. Ekonomia ezkurturik ez balego, ezingo litzateke ulertu estatuan sei milioi langabe egotea eta % 40k prestaziorik ez izatea.

ZABALIK

XABIER LETONA
http://goiena.net/iritzia/



Derryn ere atez ate, baina...

Oraingo nire bizilekuan, Irlandako Derryn, hondakinak atez ate biltzen dituzte, bi multzotan: ostiral batean organikoa eta errefusa dena batera, hurrengo ostiralean plastiko, paper, beira... dena nahasian. Bi edukiontzi daude etxeko kanpoaldean eta han doaz pilatzen multzo biak.

"Bi hondakin multzo! Historia da hori gurean", esan nion hasieran nire buruari. Baina ez, historia izango da hondakina dagokion moduan bereizten duten arrasatearren herenarentzat.

Beste bi herenentzat antzerka da, Derryn bezala, edo okerrago, Debagoienean herritarren %66k hondakin guztiak denak nahasian botatzen dituztelako egun ere.

Iruñean, ohiko bizilekuan, Debagoieneko antzeko birziklatze datuak dituzte, baina kopuru horietatik gora egitea oso gaitza da egungo bilketa eta kultura moldeekin. Datuak eta esperientziak oso argiak dira: bakarrik Gipuzkoan atez atekoa indarrean jarri dutenek lortzen dituzte emaitza itzelak (Europako onenak!, %75-85eko birziklatze tasak) ia batetik bestera, bizpahiru hilabetetan.

Inguruko jende aurrerazaleak behin baino gehiagotan galdetu dit Iruñean: "Zer ari zarete zaborrekin Gipuzkoan?". Zuek zertan ari zareten azaltzen diet, eta gehienek ulertzen dute. Hauek ere hainbat multzotan birziklatzen dutenetakoak dira. Arazorik ez. Atez atekorako ere ez dut uste izango luketenik. Baina ez dute aurrerago egiteko kezka gehiegirik. Inork ez ditu akuilatzen; hor daude datuak lo: herritarren %35 txukun, %65 baldar. Txukunak uste du denak ari direla bera moduan, baldarrari bost axola.

Eta orduan antzuolar eta oñatiarrekiko inbidia sanao dator kit. Eta miresmena, bailarako txikienetakoak eta buruan! Eta inbidia Arrasateko lagunei, zorte itzela duzuela uste dut, XXI. mendeko gai eta eztabaida garrantzitsuenetako baten buruan zaudetelako. Nik harro azalduko nieke Iruñeko lagunei –kooperatibekin moduan– nire sorterrikoek atez atekoa nola egiten duten, baina hori zuen erabakia da. Animo!

USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.com

Helduondako da

Deba (eta Oñati) ibaia garbitzeko deialdia egin du Mankomunitateak. Urriaren 13a jarri dute erreka garbitzeko data. Bergaran hasi dira hori antolatzen, auzolanean egin gura dute-eta. Gustatu zait deialdia helduondako egin izana. Gehienetan umeak, gaztetxoak bidali ohi izan ditugu zikinak jasotzera. Ikastolen aldeko festen biharamunean ere sarri ikusi ditugu, telebistako albistegian, herri hartako gaztetxoak bezperan sortutako zikina jasotzen. Baina zikin hori gazte zein helduok sortutako da, eta "ez da zikindu behar" mezu hori helduondako ere balekoa da. Eta berdin errekaekin ere. Ume eta gaztetxoak joan ahalko dira, baina deialdia helduondako da.

KALE INKESTA

Espainiako Gobernua ordua ordubete atzeratzea pentsatzen dabil. Zer iruditzen zaizu?



IÑAKI
BALANTZATEGI
ARRASATE

"Tontokeria bat iruditzen zait. Parlamentuek adostuta erabaki beharko lukete, bestela estatu bakoitzean ordu bat izango dugu".



ARANTXA
ARANZABAL
ARRASATE

"Europar ordutegia hartzea egokia dela iruditzen zait; etxera lehenago joan eta familiarekin denbora gehiago pasa".



KARMEN
USANDIZAGA
ARRASATE

"Hori bekatua da. Niri ez zaizkit aldaketak gustatzen. Uste dut orain ondo gaudela, ez dut aldaketarako arrazoirik ikusten".



IÑIGO
BOLUNBURU
BERGARA

"Niri gustatuko litzaidake. Arratsaldeak libre izatea gauza aurrerakoa dela uste dut. Kostako da, baina, gauzak aldatzea".

HANDIK ETA HEMENDIK

'El escarmiento'

Joxe Aranzabal
http://blogak.goiena.net/faroa/

El escarmiento irakurri dut, Miguel Sanchez-Ostiz idazle nafarrak Pamielan argitaratutako liburua, eta ikaragarria iruditu zait, bertan kontatzen baitu, datu mordoa erabilita, 1936ko uztailean Espainiako Errepublikaren kontra matxinatutakoek Nafarroan antolatutako izua, eta hori bezain ikaragarria, harrezkero faxista haien ondorengoei –senitartekoak eta politikoak– egin dituzten ahaleginak orduko hura ezkutatu, aldarazi eta ukatzeko.

Lehen atal nagusia –*Vista general*– kostata irakurri dut, nahasia eta subjetoegia aurkitu baitut, baina hortik aurrera bala bat moduan egin dut aurrera, zuzen eta eten barik, interesak eramanda.

Oraindik ere harrituta nago ikusita Nafarroan zelako triskantza eta jazarpena antolatu zuten, aintzat hartuta bertan faxistak nagusitu zirela eta gerra beste nonbaiten zegoela.

Baina erretagoardia akonjatuta eduki beharra

zegoen, hori zen Mola jeneralaren hasierako asmoa:

"Es necesario crear una atmósfera de terror, hay que dejar sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todo el que no piense como nosotros. Tenemos que causar una gran impresión, todo aquel que sea abierta o secretamente defensor del Frente Popular debe ser fusilado".

Hori orduan. Baina gaur egun ere, oso zaila da Nafarroan orduko desmasien datuak atera eta izenak kaleratzea, berrogei urtez agintean egondakoak arduratu ziren-eta halakorik gerta ez zedin, ez orduan, ez eta trantsizioa ezkerro igarotako urteetan ere.

Liburuan zehar pertsona asko eta askotarikoak agertzen dira.

Goi mailako faxistak –Mola, Sanjurjo, Soltxaga...–, haien morroiak –*Garcilaso*, Iribarren, Maiz...–, matoiak, elizgizonak, biktimak, sasi historialariak...

Liburua potoloa da, 507 orrialde, eta blog bat dauka, *El Escarmiento* izenekoa, haren osagarri.

Gaia interesatzen bazaizue, irakurri, lagunduko dizue-eta gure historia hurbila –eta gaur egungo egoera– hobeto ulertzen.

Ama, hoiei ze gustatzen zaie, Euskadi edo España?

Josu Leokanne
http://eibar.org/blogak/josu/

Behin, umetan, bost bat urte izango nituen, dozenaka lagun ikusi nituen etxe parean Izquierda Unidako banderak eskuan. Aitari eta amari hori zer zen galdetu, eta partido politikoa zela. Eta nik, nire inozentziatik....

-Ta hoieri ze gustatzen zaie, Euskadi edo España?

Biak barrezka hasi eta "horri, Mundua!!!" erantzun zidaten. Konzientzia politikoa eta identitatea eraikitzen ari nintzen hartan, faszinantea iruditu zitzaidan. Gerora jabetu nintzen euren banderak estatu eredu bat bakarrik ez, nazio bat ere ordezkatzeko dutela. Nik ere badudala nazio bati lotutako identitate bat, eta badela posible nork bere herrian sustraiturik munduarekiko ikuspegi irekia izatea. Are gehiago... horrela egindakoa baino aportazio aberatsagorik nekez egin dakiokela munduari.

goiena²
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarría
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziertra Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa


EGOTITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550:
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550:
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: SS-0088/I04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zorionak, denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko iraileko zozketetako irabazleak



KAFE-MAKINA

Xabier Heriz Velasco (Arrasate)



Baserrisarea.com-ek emandako otarrak

M.Angeles Padilla (Bergara)

Maritere Galdos (Oñati)

Jon Otaegi Arrieta (Bergara)

Jose Antonio Gardoki Beitia (Aretxabaleta)

Ana Maria Urzelai Etxaniz (Elgeta)



Arrikrutzerako sarrerak

Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)

Izaro Agirre Bengoa (Arrasate)

Iñaki Martinez Busteros (Arrasate)



Argiak emandako jokoak

Xabier Zabala Urriategi (Bergara)

Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)



Argiak emandako liburu sortak

Jose Antonio Crespo Fernandez (Bergara)

Justina Iñarra Mazmela (Bergara)

Iñaki Umerez Zabaleta (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Beste sariak. Saria jasotzeko zatorz GOIENAREN Aretxabaletako bulegora.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-O-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05

Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK



Leintz Gatzaga, baso eta mendi artean. | ANDER LARRAÑAGA

Ehiztari eta ehiza-zale ugari Leintz Gatzagari begira egongo dira egunotan

Udalerriko ehiza barrutiaren enkante-prozesua asteotan egingo dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaur, astelehena, 14:00etan itxiko dute Leintz Gatzagako ehiza barrutiaren enkantean parte hartzeko eskaintza ekonomikoak aurkezteko epea.

Udaletxeko bulegoetan azken asteotan izan den joan-etorria ikusita, eta kontuan hartuta oraingo zapatuan ere udaletxeko ateak zabaldu egin behar izan dituztela ehizarekin lotutako eskaintzak jaso edo informazioa emateko, pentsatzekoa da eskaintza ugari aztertu beharko dituztela udal langileek hasi berri dugun aste honetan.

Seguru aski, gehienak Debagoienekoak edo gertu samarreko ehiztari, elkarte edo enpresenak izango dira. Baina baliteke urrunagotik ere jasotzea eskaintzaren bat edo beste, guztiendako daude eta ateak zabalik.

Gutun-azalen irekiera bihar

Kontuak kontu, eta enkantera aurkeztutako dokumentazio guztia behar den moduan baldin badago, Leintz Gatzagako Udalaren asmoa da bihar, martitzena, 16:30ean zabaltzea eskaintza guztiak, jendaurrean. Bestela esanda, interesa duen edozein egon ahal izango da irekiera ekitaldian.

Eskaintza guztiak aztertu eta gero, onenei adjudikatuko dizkiete ehiza barrutiak eskaintzen dituen ehiza jardunak: usoa (45 postu), oilagorra (zortzi txartel) eta ehiza

larria (20 basurde eta 20 orkatx ehizatze baimena).

Uso postuen kasuan, kontuan hartu beharrekoa da zorua bakarrik adjudikatuko dutela. Hau da, postu horietan ipintzen diren aldarmio, parapeto eta bestelako egokitzapen guztiak adjudikatioaren esku geratuko dira. Eta kontuan hartu beharrekoa da, baita ere, uso postuen zenbakietan berrantolatuta egon dela.

Edozein modutan ere, datozen egunotan erabakiko den enkanteren arabera, lau urterako adjudikatuko die Leintz Gatzagako Udalak bertako ehiza barrutia eskaintza onenei.

Osoko bilkurak berretsi behar

Hori bai, hasiera batean, adjudikazio proposamenak izango dira oraingo astean egingo dituztenak. Izan ere, proposatutako adjudikatzailerik behin betiko adjudikatzailerik bihurtzeko hainbat dokumentu eta obligazio bete behar dituzte; guztia bete ondoren, osoko bilkurak behin betiko adjudikatzailerik izendatuko ditu.

Ehiza xehea, urriaren 12tik

Egin beharreko guztia, gainera, presazko prozeduraz egiten dihardute, aurtengo ehiza denboraldia ate joka dugu-eta.

Leintz Gatzagaren kasuan, gune bakoitzak bere ezaugarriak ditu, usoa eta oilagorren urriaren 12tik aurrera ehizatu ahal

Ehiza barrutia, datutan

1.002 HEKTAREA

► Leintz Gatzagako ehiza barrutia Eskoriatzan hasten da, Maroto aldera segitzen du, Arabako mugaraino ailegatzen da, Garai basoaren zatitxo bat hartzen du eta herria bera du hurrengo muga.

ERRESERBA, %12

► Ehiza barrutiaren %12 erreserba da. Bestela esanda, hor ezin da ehizarik egin. Eta norbait ehizan harrapatuz gero, isileko ehizan dabilela kontsideratu eta legez zigorra etor dakioke.

BABESLEKUAK

► Udalerriko babesleku dira herria bera, baserriak eta zenbait zelai. Bada, horiek ez dira ehiza barrutian sartzen.

izango dira. Basurde eta orkatzei dagokienez, berriz, adjudikazio prozesua bukatu eta berehala dago haiek ehizatzen hasteko aukera.

Diru-iturri handia

Garrantzitsua da Leintz Gatzagarendako asteotan egingo den enkantea. Hain zuzen, garrantzitsua da bi arlotan.

Batetik, eta lehentasunak edo premiak aintzat hartuta, garrantzitsuena da udalerrirendako kontuan hartzeko moduko diru-iturri bilakatuko dela udalerriko ehiza barrutia. Izan ere, enkanteren bitartez jasoko den diru kopurutik %21eko BEZa Leintz Gatzagako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari (Ogasunari) ordaindu behar dio. Eta %20 Aldundiari eman behar diote, mendiko hobekuntza lanak egiteko. Beraz, hori gero Aldundiak berriro ere inbertituko du mendiko hobekuntzak egiteko, eta kasu horretan, Gatzagarendako mesedegarria da, bertako mendietan inbertituko du-eta Aldundiak.

Ehiza larria, mesedegarri

Bestetik, eta bigarren mailan bada ere, esanguratsua da urtetan ehiza xehea (usoa eta oilagorra) egin den barrutian, aurtengo urritik aurrera ehiza larria egiteko bidea ere zabaldu dutela.

"Guretzat garrantzitsua da ehiza larria egin ahal izatea", dio Imanol Saez de Biterik, ehiza kon-

Ehiza barrutia, zenbakitan

USO POSTUAK

- 45 postu atera dituzte enkantera, hiru mailatan sailkatuta:
- Lehen mailakoak: Pagoederren 12 eta Landan 4.
- Bigarren mailakoak: Pagoederren 15 eta beste 7 Dorletan.
- Hirugarren mailakoak: Retrancan 7 postu.
- 15 postu daude herritarrendako gordeta.

OILAGOR TXARTELAK

- 8 txartel atera dituzte enkantera.
- 2 txartel gorde dituzte herritarrendako.

EHIZA LARRIA

- 20 basurde eta 20 orkatx ehizatze baimena atera dute enkantera.

tuez arduratzen den zinegotziak. Hori arrazoitzeke, basurdeek eta orkatzek azkenaldian eragindako kalteak aipatu ditu hark. Esandakoaren arabera, baserriarren zelaletan-eta kalteak eragiteaz gainera, istripu bat ere gertatu da aurtun orkatx baten kontura.

"Eta basurde eta orkatx kopuru handia dugu; Ekos enpresaren plan teknikoaren arabera, ehiza larria egiteko beste", jakinarazi du zinegotziak.

Kontatu du, baita ere, aspaldi dela ehiza mota hori ez dela egiten Leintz Gatzagan: "Beti egon da beldur handia ehiza larriarekin, zela egiten den... Urte asko da ez dela hemen halakorik egin. Izan ere, azken urteotan, basurde edo orkatzekin arazoak edo kalteak egon izan direnean, Diputazioak baimena eman du uxaldiak egiteko ehiza babesleku barruan. Baina pentsa, iaz otsailerako zegoen uxaldi bat egiteko asmoa, eta, elurra egin zuenez (ezin da ehiza larriarik egin elurrarekin), ez zen egin. Azkeneko uxaldia orain dela lau urte egin zen".

Laburbilduz, mesedegarria da Leintz Gatzagarendako bertan ehiza larria egin ahal izatea.

Horiek, bada, asteotan Leintz Gatzagan eta inguruko ehiza-zaleen artean berbagai izango direnak. Bai bertako Udalarendako, bai ehiza kontuetan jarduten dute-nendako berritasunak ekarriko dituen asteak izango dira.



Bandaren kontzertua Lazarraga lorategian.



Haurrek ere izan zuten zer egin.



Potx eta Motx pailazoak.



JOSE LUIS
MADINAGOITIA
IKUSLEA

"Kontzertu benetan gozagarria izan da. Herriko autoreen pieza batzuk interpretatu dituzte eta Lazarraga lorategian oso ondo entzun da saioa".



Barraketan gozatzen



Nafarroako bandera.



Danborrada jendetsua egin zuten zapatuan. | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO/JON BEREZIBAR



JUAN
MADINAGOITIA
DANBOR-JOLEA

"Aurtengo entseguetan ia ez ginen plazan sartzen, jende asko batu gara. Danborrada hasi aurretik afari on bat egin dugu lagun artean eta orain gozatzeko ordua heldu da. Egun berezia da gaurkoa".



IBIS
RODRIGUEZ
ACESMAKO KIDEA

"Aurten herrian integratzeko beste pauso bat emanez, txosna bat jarri dugu. Edari karibetarrak saltzen ditugu, Oñatin mojitoak du arrakasta gehien. Hala ere, beste hainbat koktel egiten ditugu".

Oñatiarrek indarrez hasi dituzte aurtengo jaiak

Urteetakko gogoratzen den danborrada jendetsuena egin zute zapatu gauean

JAGOBA DOMINGO | OÑATI
Gogotsu ekin diete oñatiarrek aurtengo San Migele. Zapatuan, txantxikuaren jaitsiera eman zien hasiera jaiei Txosnagunean, *Txantxikuak potxonia xaon/k* lelopean eta ondoren, urteetako danborrada jendetsuena egin zuten jailetako lehenengo egunean. Aurten baina, txantxikua ez da izan elizako kanpandorretik jaitsi den bakarra; Nafarroako bandera ere zintzilikatu zuten, ke gorritz dotoretuz.

Danborrada jendetsua
Ohiturei jarraituz, San Migel egunaren bezperan danbor hotsek hartu zuten Oñati; eta inoiz baino zaratzatsua izan zen, izan ere, orain arte egin den danborrada jendetsuena izan zen. 450 lagun inguru irten ziren, Potx eta Motx pailazoak tarteko, eta Juan Madinagoitia danbor-jolea beterean arabera, *gazteek ohitura hartu dute eta noizbait beterean ere erreleboa emateko prest daudela dirudi*.
Jendetsuena bai, baina arazo teknikoek eta eguraldiak festari distira kendu zioten. Megafonia-



Txantxikuaren jaitsiera. | IMANOL SORIANO

ren arazoak tarteko, ibilbide motzagoa egin zuen danborradak. Plazan bertan ere, soinu arazoak izan zituzten. Izan ere, banda udaletxeko arkupean jarri zen, eta plazako beste aldean zegoen Txosna Batzordeko konpainiak apenas entzuten zuen musika. Euriak ere egin zuen agerraldia bukaera aldera, hala ere, San Migel ereserkia gogotsu jo zuten oñatiarrek.

Bandaren kontzertua
San Migel eguneko zita berezia izan ohi da Udal Bandaren kontzertua, bada atzo, oñatiarrek ez zuten kale egin. Gainera, aurtun lehenengoz egin zuten jailetako kontzertua Lazarraga lorategian eta gozatu ederra hartu zuten gerturatutakoek.
Haurrek ere jolasteko aukera izan zuten, goizean Etzaluze inguruan jarritako jokoekin.

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

UNIBERTSITATERAKO:

- Ingeniaritza.
- Enpresa ikasketak.

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA:

- LMH.
- DBH.
- Batxilergoa.

SARBIDE PROBAK:

- Goi mailako zikloetarako.
- Unibertsitaterako.

HIZKUNTZAK:

- Ingelesa
 - Ikastaro trinkoak:
 - Pet.
 - First.
 - Advanced.
 - Ahozko aurkezpenak ingelesez.
 - Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten irakasleentzako didaktika eta metodologia.
- Alemana.

ELIKADURA:

- Elikagaien Manipulazaila.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es



Egubakoitzean, Durana kalean egindako kantu afarian, herritarrek abesten.



Dantzariak hHerriko Plazan.



Taloak egiten.



Azokako zapata postua.



Haurrak ahuntza begira.



Saltzailea eta bezeroa, zapatuko azokan.



Herritar bat, Iñaki Perurenak proposatutako erronka hartuta . | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO, ANDER LARRAÑAGA ETA JOSETXO ARANTZABAL

San Migelek inoiz baino jende gehiago erakarri dute aurten

Aretxabaletarren parte-hartzea azpimarratzekoa izan da aurtengo San Migel jaietan

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Asteburu borobila izan dute aretxabaletarrek: aurtengo San Migel jaiek inoiz baino arrakasta handiagoa izan dute eta herritarrek pozik agertu dira emaitzarekin.

Kantuan hasi zituzten jaiak egubakoitzean: Durana kalean

kantu afaria egin zuten eta giro paregabe eta herrikoia izan zuten aretxabaletarrek.

Zapatu goiza indarrez hasi zen azokarekin, barazki, talo eta sagardoz inguratuta eta, urtero legez, baserritar jantzita joan ziren azokara aretxabaletar gehienak. Arratsaldean, herri bazka-

ria egin ostean, Beinke-Loramendi dantza taldekoek eta beste herritar askok Larrin Dantza egin zuten Herriko Plazan.

Atzo aje larregi ez zutenak herri kirolak ikustera ere animatu ziren. Harri-jasotzaile, trontzalari eta aizkolariek Herriko Plaza bete zuten. Arratsaldean,

Aretxabaleta Abesbatzaren emandak itxi zituen aurtengo San Migel jaiak.

Herritarren parte-hartzea

Ana Bolinaga alkateak adierazi duenez, San Migelak (abuztuan ospatzen diren Andramaixekin batera) munduko jairik onenak

dira, "herritarrek parte hartzen dutelako eta kalean laguntzen egoten direlako".

Azokan esaterako, adin guztietako jendea zegoen: txikiene-tatik hasita, helduenetaraino. Kurtzebarri eskolako haurrek urtean zehar landatutako barazkien postua bertan egon zen eta beste aretxabaletar askok ere euren postua jarri zuten. Zapatuko herri bazkaria amaituta dantzan egitera ere animatu ziren herritarrek, Beinke-Loramendi dantza taldekoekin batera. Dantzariak azaldu dutenez, "aurten inoiz baino jende gehiagok hartu du parte Larrin Dantzan". Beraz, ezin daiteke esan aurten geldi egon direnik herritarrek.

JON ANDER ALBERDI
ARETXABALETA



"San Migeletako egunik onena zapatua da. Goizeko azokan giro paregabea egoten da eta gaueko parranda errematea da".

XABIER BASABE
ARETXABALETA



"Aste osoan lan egin eta gero gogotsu hartu ditut jaiak. Kantu afaria dut gustuko; azoka eta herri bazkaria ere atsegin ditut".

SARA MONTERO
ARETXABALETA



"San Migelak oso gustuko ditut, primeran pasatzen dudalako: ederto jaten dugu eta parranda izugarriak botatzen ditugu".

FELIX BARCINA
ARETXABALETA



"Perretxikoen eta fruitu lehorren postua daukat eta, egia esan, ondo saltzen da Aretxabaletan: Hirugarren urtea dut".

IRATI ASTONDOA
ZEANURI



"Trontzan egitera etorri naiz, herri kiroletara. Aretxabaletara natorren lehenengo aldia da eta ederto ibili naiz".



Buzkantza-jana, barikuan, auzetxean. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Buzkantzak, erromeria, futbola eta auzo bazkaria Garagartzako sanmigeletan

J.B. | ARRASATE

Arbigarak udaberrian eta san-
migeletan buzkantzak; horiek
Arrasateko tradizio gastron-
omikoaren ezinbestekoak. Gara-
gartza auzoa izan da asteburuan
joan beharreko lekua eta aurretik
ere ez dute huts egin auzotar-
zein bisitariarik urteroko hitz-
orduan. Jatunenak ere bapo uzte-
ko, 300 kilo buzkantza gertatu
zituzten Otamendi eta Agirre

-Etxe harategiek eta auzetxean
egon zen jateko aukera.

Asteburu osoko festa

Auzoko jaiak ere izanik, bari-
kuko erromeriatik atzoko auzo-
-bazkarira arte aparteko giroa-
ri eutsi diote astebukaera osoan
zehar, tartean Gorritiren ani-
maliekin, ohiko meza, eta Koba-
toko futbol partiduekin, aurren
bederatzigarren urtez.



BERGARA

IMANOIL SORIANO

Angiozarren, kantu bazkaria

Zapatuan kantu bazkaria egin zuten Bergarako Angiozar auzoan San Migel jaiak ospatzeko. Trikitiak eta panderoak lagunduta, eztarrien erakustaldirako, abesti sorta luzea izan zuten abesteko auzotarrek. Bazkalostean mus txapelketa eta musika izan zuten zapatuan. Jaiak atzo amaitu zituzten *San Migelen zeruratztea* delakoarekin.



ARRASATE

IMANOI SORIANO

Artisautza, dotoreziaren lagun

Agerikoa izan zen bariku iluntzeko artisau azokan Maritxu Kajoi eguna ate-joka dela. Arrasateko Eskuartean artisau taldeak azoka egin zuen. Bitxigintzako piezak eta osagarriak ugari egon ziren, mota guztietakoak eta ausartagoek buruko zein kapela aski dotoreen artean aukeratzeko modua ere izan zuten.

ARRASATE

Pozik jaso zuen 'Inbutu Preziatua' Gorosabelek



Gorosabel, inbutuaz baliatuta, lehen txikitoak zerbitzatzen. | IMANOL SORIANO

J.B | ARRASATE

Maritxu Kajoiaren *nobenarixue*-k jaiegun handiaren atzera-kontaketa markatzeaz gain, herritar bat urteetan egindako lanarengatik omentzeko ere baliatzen du Komisiñuak. Errugbi taldearen bultzatzaile nekaezina izan da 30 urte baino gehiagotan eta 40 bat egin ditu Olentzeroren traktorearen gidari moduan aurtengo *Inbutu Preziatua* jasotzeko, Patxi Gorosabelek. Aitortzarekin pozik, senide eta lagun artean jaso zuen Gorosabelek omenaldia eta hura arduratu zuen lehen ardo txikituak zerbitzatzeaz, ohitura den legez. Nahi zuenarentzat gazta eta ardoa banatu zituen Maritxu Kajoi Komisiñuak ama-birjinaren irudiaren pean. Hala, egun gutxi besterik ez dira falta egun handirako. Barikuan ospatuko da Arrasaten Maritxi Kajoi eguna.



ARETXABALETAKO
Lanbide Eskola
Donostia-Londra-Indurroa
Donostia-Londra-Indurroa

2013/2014 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK

LANGILE ETA LANGABETUENDAKO



PROFESIONALTASUN
ZIURTAGIRI
BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)

KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANI- ZAZIOA	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa	UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan	80
		UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	80
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
		UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30
(FMEO110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG eta (FMEO210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsizaillearekin soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadura- rekin	90
		UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadu- rarekin	90
	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea	UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG solda- durarekin	90
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA eta (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETA MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANTARIOA	MF0251_2 Etxeak laguntza eta elikadura familiarra	UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldea famili unitatean	60
		UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	40
	MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa	UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala	30
		UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza	50
		UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen komunikazio teknikak	50

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEO110
Soldadura elektrodo estaliekin eta TIG

680



KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Altueran lan egitea	20
Garabietan lan egitea	20
Eskorgan lan egitea	20

DOAN

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETAKO (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETAKO.COM
IA@IARETXABALETAKO.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955



heziketa
formación profesional








EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



HOBETUZ
Hobekuntza programak



Europako Giza Funtza



Klub eta taldeetako ordezkariak AEDko Bultza taldekoekin, talde argazkian.

ARRASATE

Euskara kirolaren bidez gihartzera konprometitu dira kirol taldeak

Abiarazitako euskara planak jendarteratu zituzten zapatuko ekitaldian

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kirolak duen indar bateratzailea eta berezkoak dituen balioak euskara indartzeko erabili gura dituzte AED elkarteak Bultza taldeak. Herriko 19 kirol talde, klub eta elkarteak hitzarmena egin dute konpromiso hori hartuta eta zapatuan asmo eta planen jendarteratze moduko bat egin zuten kirol-jarduera eta euskararen aldarrikapena kalera ateraz.

Asmoak handiak dira. Arrasaten kirolak mugiarazten dituen 5.000 lagunetik gora inplikatu eta, indar biderkatzailez, haien inguruko senide eta lagunengana zabaltu gura dute hedapena. Hitzarmenaren sinadura ekitaldi publikoa egitearekin batera, norbanakoek ere atxikitze aukera izan zuten zapatuan.

Konpromisoa hartuta, galtza bete lan dute orain taldeetako kideek. Enpresa ala erakundeetan bezala, talde bakoitzak bere egoera eta helburuetara egokitutako euskara plana diseinatu du eta, bakoitza bere erritmoan, baina, zehaztu dituzte urratsak.

Helburu eta ekintza zehatzak

AEDko Joxe Mari Muxika da Bultza taldeko kideetako bat eta hark garbi dio oztopo nagusia "ohitura falta" dela, "euskaraz dakigun askok uste gabe gazte-laraz egiten dugulako eta seme-alabek ez dute ikusten euskaraz zergatik egin behar duten", alegia. Zapatuko ekitaldian hartutako konpromisoek kirol taldeetan kontzientzia badagoela erakusten dutela dio Muxikak eta horren adierazgarri dela "elkar-

teek egin dituzten planak euskara gazte-lararen parera jartzeko". Ekintza konkretuez dihardu Muxikak, "idatzietan, solasaldietan, harremanetan, entrenatzaileen saioetan..." euskararen erabilera areagotuko ala jadanik areagotzen dabilzalako. "Ekintza zehatzak epe baten jarrita", nabarmentzen du.

Zapatuko sinadurarekin batera adierazpen publikoa ere irakurri zuten taldeetako ordezkariak, azpimarratuz, "kirolean eroso aritzeko ariketa egunerokoan egin behar den bezala", "euskaldun moduan natural eta eroso bizitzeko egunerokoan" eman behar zaiola "arnasa euskarari", hain zuzen. Zapatukoa etorkizunaren iragarpena dela esanez, halaxe, amaitu zuten adierazpena.



Saskibaloia erakustaldia egin zuten Biterin.



Mikel Lezamiz, aurkezle lanetan.



Labaian bertsolaria, ekitaldian.



Neskato taldea aerobic saio baten, plazan.



Arizmendi taldeko kidea, sinadura ematen.



Herritarrek ere izan zuten sinatzeko aukera.



Trikitilariek girotu zuten eguerdiko ekitaldia.



Aikido taldekoak txikienei erakusten ibili ziren. | ARGAZKILARIA: IMANOL SORIANO



Jon Sarasua bere liburuarekin eta atzean Mikel Irizar eta Jose Angel Irigarai. | TOPAGUNEA

SORALUZE

Euskara bizi indar moduan, TopaEgunean

Topaguneak egun osoko jaia egin zuen zapatuan Soraluzen

J.B. | SORALUZE

Ehunka euskaltzalek indarra erakutsi zuten TopaEgunean Soraluzen. Zapatuan, Deba ibarreko euskara elkarteek eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, festa egunean euskara elkarteen balioa ospatzea izan zen nahia, mugimendu sozial moduan, duten eragina erakusteko. Jolasak, musika, bertsoak... eta Jon Sarasuak liburua aurkeztu zuen: *Hiztunpolisa*.

Elkarteen balioen lorea

Egun osoko festan, arratsaldeko ekitaldian Deba ibaian bertan, petaloetan euskara elkarteen balioak erakusten zituen lorea osatu zuten ur-azalean elkartetako ordezkariak: euskalduntasuna, auzolana, plazera eta plaza. Egunak utzitako irudia horixe izan zen, aldarrikapen irudikapen bitxi bezala. Debagoieneko euskara elkartearen eta Goienako ordezkariak zabala ere izan zen Soraluzen. Mikel Irizar, Euskara Elkartearen Topaguneko lehendakariak hartu zuen hitza. Hain zuzen, hari

egokitu zitzaion aipatutako lore horren petaloetako bat jartzea. Uretatik atera berritan Topaguneko lehendakariak bi berezitasun azpimarratu nahi izan zituen. Bat, balio nagusia, "euskara batzeko indar moduan" aldarrikatzea. Irizarrek azaldu zuenez, "batzuetan euskaldunok euskara obligazio ala agobio maila batekin bizi izan" dutela baina "aldi berean nahi horrek

batu" egiten gaituela. Soraluze eta Deba ibar osoa ere aintzatzat izatekoak direla gehitu zuen Irizarrek "herri eta bizi indarra" erakutsi zelako zapatuan. "Tokikotasuna" da oinarria, haren esanetan, eta bakoitzak bere tokian indartu behar duela euskara, hain zuzen. Deba ibarreko elkarteek, horretan, "sekulako" laguntza eman dutela nabarmentzen du.



Topaguneko Jasone Mendizabal, eguerdiko ekitaldian. | TOPAGUNEA



Deba ibaian egin zuten lorearen irudikapena, azken petaloa jartzen. | J.B.



Haurrasate hanka-kosko batekin irudikatu dute; aurkezpenean haurrek lehen ekarpenak egin zituzten. | JON BEREZIBAR

Haurrasate: Arrasate hobe baterantz, haurrak oinarri

Txatxilipurdik, Bagarak eta Huheziko Heldu ikerketa taldeak aurkeztu dute egitasmo berria; urritik abendura, gogoeta fasean, hiru bilera egingo dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdik, Bagarak eta Huheziko Heldu ikerketa taldeak egue-nean aurkeztu zuten Haurrasate proiektua, Zaldibar pilotalekuan.

Haurraren ikuspuntua kontuan hartzea aldarrikatzen dute herri arduratsuago bat eraikitzen joateko, diotenez haurrendako hiri atsegin eta egoki batek biztanle

guztientzako onura dakarrelako. Francesco Tonucci ikerlari italiarraren tesiak dituzte oinarri, haren arabera, haurren beharrak asetzen dituen herriak guztion

beharrak asetzen ditu-eta: "Horregatik jartzen ditugu haurrak zentroan, izan ere, haurrek helduak, emakumeak, etorkinak, gorpildun aulkian dabiltzanak eta beste hainbat kolektiboren hitza ordezkatzeko dute", esan zuen Txatxilipurdiko Gari Iturbek.

Espazioak beste era batera egokitu eta ondo daudenak, Santa Barbara ala Monterron parkeak kasu, hobetu gura dituzte ekimenaren sustatzaileek. Helburua, herri osasuntsua eta arduratsua lortzea, umeengan oinarrituz bai, baina onuradun herritar guztiak izango dituen: "Arrasateri begira jarri gara eta konturatu gara gure herria, azken urteetako bilakaerari begiratu batez ere, autoei begira eraiki dela. Gune berde asko izatetik gero eta gutxiago izatera pasa gara", adierazi zuen Bagarako Iraitz Agirrek. Egitasmoa hanka-kosko jolasarekin irudikatu dute.

Lehen bilera, urriaren 9an

Hausnarketa kolektiboa proposatzen dute, hiru taldean: haurrak, gazteak eta helduak. Hiru bilera egingo dituzte: urriaren 9koan espazio irekiak eta pertsonen ongizatea hartuko dute gai; urriaren 23ko saioan, irisgarritasuna eta pertsonen autonomia; eta, azaroaren 6ko batzarrean, azkenik, parte hartzea ahalbidetzen duten espazioak aztertuko dituzte. Abenduan gogoeta fasea amaitutzat emango dute jai batekin. Herritar guztientzat dago zabalik gonbidapena.

NIRE USTEZ

HORACIO ARGARATE



Atez ate

Datorren egubakoitzean, urriak 4, lau urte beteko dira Arrasatera abade lana egitera etorri nintzela. Arrasatera etorri aurretik, lan berbera Usurbilen betetzen nuen. Eta herri horretan, zaborra biltzeko atez ateko sistemaren jaiotza ezagutu eta, herriko gehiengoaren nahiari men eginez, parte hartzea tokatu zitzaidan.

Lau urte geroago, Debarrenera iritsi da sistema eta bigarrenetaz, lehen entzundako kontuak entzun beharra tokatzen zait. Zaborra biltzeko modu hau, guztiak bezala, kritikagarria da, noski. Baina aldi luzea herri batzuetan sistema martxan dagoela, hasierako mamuak berpizteak ez digu inongo mesederik egiten. Mamuak beldurgarriak dira itxuraz, izara altxatu arte. Izara azpian ezer ez dagoela konturatzeko zarenan, aldiz, zure beldurti izaeraz barre egitea besterik ez zaizu gelditzen.

Sistema hau ez da ez zikina, ezta aurrera eramanezinezkoa ere. Oinarritzko ohi-turak aldatzea zaila egiten zaigu, baina beharrezkoa bihurtu da, zure etxe aurrean errauskailua ikusi nahi ez baduzu. Eta ohi-turak ez dira betirako. Orain dela gutxi arte, gure artean hildakoak lurperatzen genituen eta zaborrak erretzen. Dagoeneko hildakoak erretzen ohi-turak gara.

Zergatik ez ohi-turak, ordea, zaborra lurra bihurtzen? Kajoiko Maritxuk gure istiluak baketzen lagundu gaitzala!

"Ohi-turak aldatzea zaila izan arren, beharrezko bihurtu da"

Hitzaldia gaur, Pakito Arriaran erail zutela 29 urte bete direnean

Pakito Arriaran borrokalaria arrasatearraren erailketaren 29. urteurrenaren harira, hitzaldia eta proiektzioa antolatu ditu Askapenak gaurko, Irati tabernan (19:00). Julio Cesar Mongek *El legado vasco en El Salvador* hitzaldia eskainiko du eta Arriaran protagonista duten bideo bat ere proiektatuko dute.



ARRASATEKO UDALA

Saskia, Montse Roldanendako

Irailaren 21eko baserritarren azokaren amaieran baserriko produktu sortaren zozketa egin zen, goizean zehar Seber Altube plazara bertaratuak bezeroen artean. Txartel saritua Montse Roldan arrasatearrarena izan zenez, saski ederra eraman zuen. Produktu sorta Uribarri auzoko Ikutixo baserriko Maria Aranek prestatu zion.

Enkante publikoan saltzeko lokalen zerrendaren berri eman du Udalak

J.B. | ARRASATE

Udalak bere jabetzakoak diren hainbat ondasun higiezin inorentzeko prozedurari hasiera emateko asmoa du. Gehienak merkatal lokalak dira, batzuk biltegi edo trastelekuak, eta etxebizitza bat ere badago horien artean. Lokal horiek Uarkapen eta Zerrajerako etxepe baten

kokaturik daude eta enkante publikoan salduko dira. Udalen asmoa da, dena ondo bidean, 2014 urte hasierarako enkantearen baldintza agiriak onartzea. Lokalen gaineko informazioa eskuratzeko BAZera jo beharko du interesatuak. Proposamenak egiteko epea azaroaren 23an bukatuko da.

Arrasateko jatorria duen euskal garagardoa salgai dago dagoeneko

J.B. | ARRASATE

Dastatzeko moduan dago dagoeneko Arrasateko jatorri garbia duen euskal garagardo berria. Logoaren irudia Arrasateko dragoian oinarritu dute eta proiektua abian jarri duten lau bazkideetatik hiru Arrasatekoak dira; bestea Gasteizkoa da. Zerb jarri diote izena.

Garagardo berria egiteko Euskal Herriko 200 bat tabernarekin egon dira, baita mundu osoan zehar dauden euskal etxeekin ere. Helburua, euskaldunok gustuko dugun garagardoa ekoiztea: "Ekologikoa da, artisaua, eta erraz edatekoa. Irail hasieran hasi ginen merkaturatzen eta oraingoz Arrasate eta Gasteizen dago salgai. Pixkanaka zabaltzen joango gara", adierazi digu Nerea Makatzagak proiektuko sustatzaileetako batek. Arrasaten honako tabernan eros daiteke: Hamalau, Rumba, Goizalde, Dublin Irish Pub, Kajoi, Larri-netxe, Muxibar, Egazka, Batzokia eta Belun. Hala ere, beste hainbat tabernetara jo dute eta onespenera zain daude.

Prezioa, tabernaren arabera

33 zentilitroko botiletan salduko dute eta prezioa tabernari bakoitzak zehaztu beharko du. Ekologikoa denez, botila bi euro eta erdi inguruan saltzea proposatzen dute sustatzaileek.



Zerb garagardoaren botila. | ZERB

Dagoeneko eman daiteke izena Auzoko eta Berriketan euskara programetan

Euskaraz ezer ez dakitenendako eta inguruan erabiltzerik ez dutenendako egitasmoak dira

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Azken urteetan moduan, ikasurte berri honetan ere jarriko dituzte martxan Auzoko eta Berriketan programak. Eta bietakoren batean parte hartu nahi dutenek zabalik dute dagoeneko izena emateko epea.

Auzoko euskaraz ez dakitenendako programa da eta Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen du; beraz, izena emateko bertara joan edo egitasmoko koordinatzaile Aitziber Plazaolari deitu behar zaio, 674 345 738 telefono zenbakira.

Herritarrek berbetarako batzen dituen Berbetan egitasmoan parte hartzeko, berriz, Jardun Euskara Elkartera -943 76 36 61 telefono zenbakira- deitu edo Errotalde jauregiko bulegotik pasa behar da.

Ikasi eta erabili

Euskara jakiteari eta erabiltzeari ematen zaio garrantzia Auzoko eta Berriketan programen bitartez. Orain arte euskararekin harremanik izan ez dutenei modu ludikoan hizkuntza erakusteko modua da lehena. Horrela, lagun taldeak ostiraletan batzen dira. Gainera, aurreko ikasturtean, lehenengo aldiz, emakume talde bat osatu zen.

Berbetanen dinamika antzekoa da: astean behin hiru edo lau pertsona batu eta dinamizatzaile baten laguntzaz hainbat gairen gainean aritzen dira, euskaraz.



Herritarrek gaztetxean bazkaltzen Mokolo Egun batean. | GOIENA

Mokolo Egunerako lehen batzarra bihar izango da

Jai herrikoi eta euskalduna izatea dute helburu

I.E. | BERGARA

Urte batzuk igaro dira dagoeneko lehen Mokolo Eguna egin zenetik, eta, antolatzaileak orain arteko erantzunarekin gustura badaude ere, oraindik zeregina badagoela uste dute: "Auzolanean eraikiz geure sentitu nahi dugun jai herrikoi eta euskalduna izateko bidean".

Horregatik, herritar guztien gustukoa izango den eguna antolatzeko, batzarra deitu dute. Bihar izango da bilera, 19:00etan, Irizar jauregian. Norbana-koei eta herriko eragileei irekitako deialdia da biharkoa eta

nork bere proposamena egiteko aukera izango du.

Herritarren bilgune

Xaxau konpartsak 2010eko azaroko azken zapatuan egin zuen lehen aldiz Mokolo Eguna, gaztetxean. "Aurrez elkar ezagutzen ez genuen herritarrok jai giro onean ospatzeko aitzakia ezin hobea bihurtu zen", antolatzaileen esanetan.

Lehen urteko arrakasta ikusita, bigarren urtean kalera atera zuten ospakizuna eta egun osoko jaia antolatu zuten Muni-be plazan.

Fermin Agirrek 100 urte bete ditu aste honetan

Fermin Agirre eta bere ingurukoendako aste berezia izan da hau; izan ere, eguaztenean 100 urte bete zituen. Agirre Mizpirualde zaharren egoitzan bizi da eta senideen eta Bergarako alkatearen bisita jaso zuen eguaztenean. Jaione Isazelaiak lore-sorta bat eraman zion eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste sorta bat bidali zion. GOIENAREN izenean ere, zorionak, Fermin!



MIZPIRUALDE EGOITZA

Realzaleekin Vallecasera bidaiatzeko azken aukera gaur

I.E. | BERGARA

Erreal Zaleak peñak bere zale-tasuna erakutsi eta taldeari laguntzeko bidaia antolatu du urriaren 5erako Madrilera. Talde txuri-urdinak Rayo Vallecanoren kontra jokatu du asteburu horretan, eta, hain zuzen ere, bergararrek han egon nahi dute.

Autobusez egingo dute bidaia, eta prezioan, autobuseko txartela, hamarretakoa, bazkaria eta partidurako sarre-sartzen dira. Apuntatzen den jendearen arabera izango da prezioa, baina, zehaztu dute-nez, ez da 100 euro baino gehiago kostako bidaia.

Gaur da izena emateko azken eguna, eta izena ematerakoan 50 euro ordaindu beharko dira.

Interesa dutenek Aralar edo Ganbara tabernan eman behar dute izena. Erreal Zaleak-eko bazkideek lehentasuna izango dute eta bidaiaren zati bat ordainduko die peñak berak.

Gabonetako Loteria

Urtero moduan, Erreal Zaleak peñak Gabonetako Loteriaren partizipazioa atera du eta dagoeneko salgai dago herriko hainbat taberna eta dendatan. Hiru eurotan salduko dira txartelak eta saltzea dagozkien bazkideek dagoeneko jaso ditzakete Ganbara eta Aralar tabernetan.

Gainera, txartelek, Gabonetako sariaz gain, beste sari bat dute: Real-Athletic partidurako tribunako bi sarrera eta gastuetarako 200 euro.



KARLOS ETXANIZ

'Peke'-ren ametsa bete dute lagunak Pirinioetan

Joseba Baltzategi *Peke*-ren lagunak haren ametsa bete zuten joan den domekan, Pirinioetan, 3.144 metroko Taillon mendia igota. Baltzategi iaz apirilean hil zen eta haren ametsetako bat 3.000 metroko mendi bat igotzea zen. 19 bergarar eta 13 gasteiztar heldu ziren Taillongo tontorrera eta "emozioz betetako" irteera izan zela adierazi dute *Peke*-ren lagunak.

Zabalik dago matrikulazioa Migel Altuna zentroko langileentzako eta langabeentzako ikastaroetan

Migel Altuna Institutuak eskaintza zabala prestatu du langile eta langabeendako. Hainbat arlotako ikastaroak ditu: fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika, administrazioa eta kudeaketa, hotzeko estantziak eta beste batzuk. Hobetuz-ek diruz lagundutako ikastaroak dira. Klaseak astelehenetik eguenera izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago eskuratu edo matrikula egiteko, 943 76 70 49 telefono zenbakira dei edo ikastaroak@imaltuna.com helbidera idatz daiteke.



Jaietako zapiak jantzita hartu zituzten erabakiak udal hautetsiek egueneko osoko bilkuran. | IRATI GOITIA

Udalbatzak du Espainiako bandera jartzeko ardura

Datozen asteetan herriko hainbat eragilerekin jarriko da harremanetan Udala, zer eta nola egin erabakitzeko

O.E. / I.G. | OÑATI

Espainiako bandera jarri behar da Oñatiko udaletxeko fatxadan eta areto nagusian. Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegi nagusiko administrazioarekiko auzi salak eman du azken epaia, ia bi urte maila ezberdinetako epaitegietan errekurtsioak jarri eta gaia berraztertzen ibili ostean. Hala, egunero eta modu iraun-

korrean jarri beharko da Espainiako bandera udaletxeko fatxadan eta areto nagusian. Sententzia honek auziaren bide administratiboa agortzen du. Beraz, epaia beteko ez balitz, gaia auzibide penalean sartuko litzaiteke.

Sententziak, bestalde, agindua betetzeko ardura udaleko zein organok hartuko duen zehaztea

eskatzen du. Egueneko osoko bilkuran, udalbatza bera izendatu zuten organo betearazle. Hau da, udalbatzak hartzen du bandera udaletxean jartzeko ardura. Dena dela, hurrengo asteetan herriko hainbat eragilerekin jarriko da harremanetan Udala "sententziari erantzuna emateko bidea aurkitzeko", Mikel Biain alkateak osokoan adierazi zuen

moduan. Udaletik egiten duten irakurketaren arabera, pasa den eguenetik bi hilabete izango dituzte bandera jartzeko. Bildu eta EAJ bat etorri ziren "erabaki inposatzailea" dela esaterako orduan. "Lehen ere ezagutu genuen bandera hori jarri beharra; bizi izan genuen momentu hura, eta agindu horren aurka gaude", zehaztu zuen Lourdes Idoiaga EAJko bozeramaileak.

'Firi'-ren aldeko mozioa

Bestalde, bi mozio aurkeztu zituzten iraileko osokoan. Batetik, Venezuelako atxilotu zuten Asier Guridi Zalaña *Firi*-ren aldekoa; aho batez onartu zuten bi alderdiek. Mozioan, besteak beste, elkartasuna adierazten zaie senide eta lagunei, eta nazioarteko eta Venezuelako gobernuari eskatzen zaie egungo egoeraren arabera jarduteko. Mozioa irakurri aurretik, Josu Lizarralde zinegotziak *Firi*-ren egoera zein den azaldu zuen: "Badakigu Interpolek zuzendu duela atxiloteta eta, momentuz, ez Espainiak ez Frantziak ez dutela estradizioaren eskaera ofizialik egin. Abokatuak, hala ere, ari dira lanean hori ez gauzatzeko. Bestalde, badakigu aste honetan birritan izan duela emaztearen eta semearen bisita. Oraindik ez dakiela epailearen aurrera noiz eramango duten eta orain arteko tratua zuzena izan dela ere esan du *Firi*-k. Eskerrak ere eman dizkio Oñatiko Udalarri eta herriari adierazitako elkartasunagatik eta herriarrei jai zoriontsuak ere opa dizkie".

Bestetik, Lomce-ren aurkako mozioa ere aurkeztu zuen Bilduk. Kasu honetan ere erabatekoa izan zen adostasuna.

Jaietako zapiak jantzita egin zuten osokoak udal ordezkariak. Prentsako langileei ere bana oparitu zieten.

Urriaren 4an hasiko da Oñatin ehiza postuen zozketa

Ehiza postuak zozketatuko dituzte Oñatin datorren egubakoitzean, urriaren 4an. Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuak dira banatuko dituztenak. Oñati tabernan egingo dituzte zozketak, egunero, astelehenetik egubakoitza. 19:30etik 20:00ak arte izena emateko tartea izango da eta zozketa bera 20:00etan hasiko da.

Antixena gaztetxean ere bazkaria antolatu dute Herri Egunerako

Haur, gazte zein helduentzako da Herri Egunerako Antixena gaztetxean antolatu duten bazkaria. Nork bere jana eraman beharko du. Mahaiak, aulkak, edalontziak, platerak eta mahai-tresnak gaztetxeak berak jarriko ditu. Bazkaria 14:30ean izango da eta jada 50 lagun baino gehiago apuntatu dira.

Margo lehiaketako pinturak ikusgai daude kutura etxean

Guztira 29 lan aurkeztu zituzten joan den domekan egin dako aire libreko margo lehiaketako helduen kategorian; bi oñatiarrak ziren. Gaztetxoan mailan, 11 margo aurkeztu zituzten eta egile denak oñatiarrak ziren. Aurkeztutako lan horiek kultura etxean daude ikusgai. Urriaren 7ra arte egongo dira.



Erronkan parte hartuko duten gaztetxoak. | TXANTXIKU IKASTOLA

Kilometroetako Erronkan izango dira oñatiarrak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Txantxiku Ikastolako ikasle taldetxo batek parte hartuko du datorren domekan Tolosan egingo den Kilometroak festako Erronka lehiaketan.

Gipuzkoako ikastoletako DBH3 eta DBH4 mailetakoz gaztetxoendako lehiaketa da eta egun osoan zehar burutuko da. Proba biziak gaingintu beharko dituzte, taldeka. Ikasleen abi-

lezia, indarra eta abiadura neurtuko dira batetik, eta buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskalzaletasuna ere bai, bestetik: eskalada, matematikako ariketak, tirolina, tribial galderak, memoria proba... egin beharko dituzte.

Bestalde, autobusa ere antolatu du Txantxiku Ikastolak Tolosarako. 08:15ean aterako da eta izena eman daiteke dagoeneko.



Txandako artista irabazleak

Banatu ditu Txandak margo lehiaketako sariak. 5-7, 8-10 eta 11-13 urte arteko ume eta gaztetxoek hartu dute parte eta Oñatiko dendarien elkarteak hiru sari banatu ditu kategoria bakoitzean. 100, 75 eta 50 euroko diru sariak, hain zuzen ere, Txandako komertzioetan gastatzeko. Lehiaketara aurkeztu dituzten marrazkiak dendetako erakusleihoetan jarriko dituzte laster. Zorionak parte-hartzaile guztiei!

ESKORIATZA

Etzi, erdialdeari buruzko lanen batzarra dago

Urri hasieran hasiko dituzte obrak eta abendurako erdialdea oinezkoendako gertu izatea da asmoa

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak aurrera dihardu herriko erdialdea berri-tzeko proiektuarekin, eta egunotan jakinarazi du urriaren hasieran hasiko dituztela Gaztañadui eta Arana kaleen arteko obrak. Gaimaz enpresak egingo ditu lanok, 338.444 euroren truke. Bada, zehaztu dute bi hilabete beharko dituztela.

Denbora tarte horretan honakoa egingo dute: Bolibarko bidegurutzetik Apotzagara doan bidegurutzeraino errepidea konpontzearekin eta asfaltatzearekin

batera, Santa Ana eta Olazar arteko bidegurutzean herri barruko lehen biribilgunea egingo dute. Horrez gain, Aretxabaletarako noranzkoan Azkoaga Enea hotel ondoan dagoen autobus geltokia Gorosarri plaza parera eroango dute; eta ur hodia berrituko dute. Eta Gaztañadui kaleko espaloi zatia aldatu egingo dute.

Saihesbidea erabili

Udaletik jakinarazi dute obrek eragina izango dutela zirkulazioan eta eragozpenak sortuko dituztela. Hortaz, lanek irauten duten

bitartean, herritarrei ahal duten guztietan saihesbidea erabiltzeko eskatu die.

Arratsaldez eta asteburuan

Bestalde, herriko erdialdea oinezkoendako egokitzeko asmoa ere badu Udalak; hain justu, Gernika plaza paretik Bolibarko bidegurutzerainoko zatia. Errepide zati hori, dena dela, ez da guztiz itxiko: asteburuetan eta astegunetan arratsaldez ibilgailuendako mugatu gura du.

Zati hori oinezkoendako egokitzeak ondorioak ekarriko ditu. Esaterako, erdialdean gaur egun dagoen zirkulazioa behar bezala bideratzeko, bestelako lanak egin beharko dira Arbiñosten, Hidalgo eta Olazarren; hain justu, zirkulazioa egokia izan dadin eta arazoak sor ez daitezen, egokitu egin beharko dira horiek. Abendurako gura dute erdialdea oinezkoendako zabaldtu, obra guztiak amaitzen dituztenean.

Horren guztiorren berri emateko eta herritarren iritzia jasotze aldera, bilera informatiboa egingo dute etzi, eguaztena, kultura etxeko lehen solairuan. Udalak hitzordu bikoitza jarri du: 15:00etan eta 19:00etan.



Joan den urtean gaztelekuan egindako ekintza. | GOIENA

Zinema, jolasak, irteerak, txapelketak... denetarik izango da urrian gaztelekuan

M.B. | ESKORIATZA

Martxan da ostera Eskoriatzako gaztelekua eta dagoeneko gertu du urriko egitaraua. Oraingo asteburuan, zapatuan, zinema-foruma izango da eta domekan, mahai jolas maratokia. Urriaren 11tik 13ra, alanbre eta fimo tailerra egingo dute; eta urriko hirugarren aste bukaeran hitzordu hirukoitza dute: egubakoitzean, *Bost baietz*; zapatuan, kartingera irteera; eta domekan,

mendi irteera. Urriaren 26an sukaldaritza tailerra egingo dute eta 27an, ping-pong txapelketa.

Hiru hezitzaile

Bestalde, Nere Uribetxebarria, Ibone Arexolaleibar eta Xabier Arenatza dira hezitzaileak. Ordutegiari dagokionez, honako ordutegian egongo da zabalik gaztelekua: egubakoitzetan, 17:00etatik 20:30era; eta asteburuan, 16:30etik 20:30era.

Spinning, tonifikazio eta aerodance saioak debalde izango dira asteen

Kirol jardueren bultzada emateko asmoz, debaldeko eskolak antolatutako asteen Eskoriatzako kiroldegian; hain justu, spinninga, tonifikazioa eta aerodancea debalde probatu ahal izango dira. Spinning eskolak astelehenean eta eguaztenean izango dira, 18:15etik 19:00etara; tonifikazioa

rekin lotutakoak ere bi egun horietan izango dira, baina 19:45etik 20:45era. Aerodancea ezagutu gura duenak, aldiz, egun bakarra izango du: martitzenean, 18:15etik 19:15era bitartean. Saio guztiak kiroldegian dira, eta ez da aurretik izenik eman beharrik, bertan agertuta nahikoa da.

Igerilekua, pilatesa eta Atzegi

Bestalde, Kirol Zerbitzutik jakinarazi dute igerilekuko talde guztiak gaur, astelehena, bertan jarriko direla martxan, taldeak osatu direlako; eta baita pilatesa eta Atzegirena ere. Pilatesko eskolak astelehenetan eta eguaztenean dira Ibarraundi museon, honako ordutegian: 18:30etik 19:30era eta 19:30etik 20:30era. Atzegirenak, berriz, martitzenetan eta eguenetan izango dira, 18:15etik 19:15era.

Bihar ezagutaraziko dituzte udako argazki lehiaketako irabazleak

M.B. | ESKORIATZA

Amaitzera doa Eskoriatzako aurtengo udako argazki lehiaketa. Ibarraundi museokoek bihar, martitzena, ezagutaraziko dituzte irabazleak; sari bana-keta 19:30ean hasiko da museon bertan. Hasiera batean, urriaren 2an izan behar zuen, baina antolatzaileek egun bat aurre-

ratzea erabaki dute, eta, esan bezala, bihar, urriak 1, da.

Hiru sari banatuko dira, parte-hartzaileen adina kontuan izanda: 15 urtetik beherakoek, 16 eta 49 urte bitartekoek eta hortik gorakoek 50 euroko txartel bana irabaziko dute, herriko merkatarien elkarteko den-detan gastatzeko.

ARETXABALETA



GOIENA

Beñat Ganboa txapeldun

Irailaren 15ean Hernanin egindako XV. trikitilari gazteen txapelketan, 16 urteko Aretxabaletako Beñat Ganboa trikitilariak parte hartu zuen, Arrasateko Leire Etxezarreta pandero-joalearekin batera. Emanaldi ederra egin zuten, eta, horren ondorioz, txapela irabazi zuten. Zorionak, bikote!

Basotxoko aste kulturalaren bueltan, elizateak bisitatu zituzten erretiratuek

Jesus Osinagak hainbat eraikinen gaineko azalpenak eman zizkien

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Basotxo erretiratuaren elkartek aste kulturala egin du, eta, horren bueltan antolatutako ekintzen barruan, joan den martitzenean Arientza elizatera egindako irteera dago. Elkarteko hamar bat bazkidek parte hartu zuten horretan.

Eguraldia lagun zutela, Portasol auzotik irteten ziren, eta, handik gora, Iturriondo parketxea igaro eta Arkarazora joan ziren. Hango jauregia bisitatu zuten eta Jesus Osinagaren eskutik horren istorioa ezagutu zuten.

Kanpaiak entzuten

Jarraian, Bolinan zehar Arientzarantz abiatu ziren; ibilaldia egiten zuten bitartean kanpaiak entzuten joan ziren herriko erretiratuak; Julen Abasolo arduratu zen jotzeaz. Arientzan Andra



Taldea Arientzako Andra Mari elizan. | BASOTXO

Mari eliza barrutik ikusi zuten, Osinagak berak eraikin horri buruzko xehetasun historiko eta arkitektonikoak ematen zituen bitartean. Bisita amaitzean, hamarretakoa egin zuten aterpean

eta handik Koruetara joan ziren, Santiago eliza bera eta horrek gordetzen duen Santiagoren erre- taula ikustera. Amaitzean, bidegorrian behera, Aretxabaletara bueltatu ziren.



Intxortako igoerako azkarrenak aurtan: Iker Herran (17.38), Iñaki Egizabal (16.15) eta Eleder Lozano (18.37). | L.Z.

ELGETA

Marka berria Intxortako igoeran: Iñaki Egizabalek egin du 16.15 denborarekin

Baserritarren eta artisauen azoka egunean jokatu zen igoera; txorimalo lehiaketako sari nagusia, berriz, 6. mailakoen 'Rastafari'-k eraman zuen

LARRAITS ZEBERIO | ELGETA

Pozik zen Iñaki Egizabal irabazlea egindako markarekin. "Mokorretik ez nabil oso ondo, baina aurtan hauxe nuen helburu", adierazi zuen saria jaso ostean. Elgetarrak zioen asko landutako marka dela: "60 bat aldiz emango nion buelta Intxortako beletari", esan zuen irribarrea ahoan zuela. "Zenbait egunetan hiru aldiz ere egin dut joan-etorria". Aitortu zuenez 1996tik zuen arantza sartuta. "Urte horretan errekorretik bost segundora gelditu nintzen. Iaz, berriz, lau segundora... aurtan lortu beharra nuen".

Ez du marka makala utzi: 16.15. Minutu bat eta 24 segundo hobetu du Jose Mari Arotzenaren denbora. "Lortu dut helburua, eta nahikoa dut. Datorren urtean Martinekin eta Pablarekin —semeak— etortzea gustatuko litzaidake".

Zortzi lagunek egin zuten zapatuan Intxortako igoera. Iker Herran izan zen bigarrena —honek ere hobetu zuen Arotzenaren marka—. Hirugarrena Eleder Lozano izan zen. Probak bizitasun handia eman zion baserritarren azokari.



Xabat Leanizbarrutia eta Igor Herce erakustaldia egiten. | L.Z.



Seigarren mailako neska-mutikoak 'Rastafari' txorimaloarekin. | L.Z.

ANTZUOLA

Emakumeen tailerra egingo dute aste honetan Laskurain zentroan

Euren alde psikikoa landuko dute gorputzaren beharrak ezagutuz eta hainbat ariketa eginez

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Egubakoitzean eta zapatuan emakumeen tailerra egingo dute Laskurain Psikomotrizitate Zentruan. *Itzala geurea egiten* du izena tailerrak eta Karmele Iturbe psikologo eta psikoterapeutak gidatuko du.

Tailerrean parte hartzen dutenen, eta oro har emakumeen,

alde psikikoa lantzea du helburu tailerrak. Iturbek azaldu duenez, "gugan edo besteengan mespretxatzen ditugun ezaugarriez jabetuko gara: ezagutzen ez ditugun horiez, gureak bezala onartzen ez ditugunez".

Bakoitzaren beharretan oinarrituta, gorputza landuko dute. "Gorputza sentitzeko lan egingo

dugu eta gorputzak berak erakutsiko digu bidea bere indar eta minetatik", azaldu du Iturbek. Oinarrian gorputza, bihotza, ideia, pentsamenduak eta taldea izango dituztela gaineratu du.

'Badira, Bagara' dokumentala
Tuterako Argia Ikastolako ikasleen esperientzia jasotzen duen *Badira, Bagara* dokumentala aurkeztu zuten atzo gaztetxean. Tuterako gune ez-euskalduna da Euskararen Foru Legearen arabera, eta ondorioz, gutxi dira euskaraz aritzeko aukerak. Argia-ko zenbait ikaslek, adibidez, kilometro asko egin behar dituzte egunero euskaraz ikasteko.

ARAMAIO

Harrera ona izan du Alberto Barrondoren argizaiola erakusketak

Oleta auzoko artisaua duela 12 bat urte hasi zen euskal eskultura berezi horiek egiten

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola Egunaren egitarauaren barruan, erakusketa interesgarria ireki zuen Oleta auzoko Alberto Barrondo artisauak Sastiñan. Hilaren 22tik 26ra, 34 argizaiola erakutsi zituen, eta harrera ona izan du erakusketak. Euskal Herrian bakarrik aurki daitezke argizaiolak, batez ere Gipuzkoan eta Nafarroan, eta herri bakoitzak bere argizaiola izaten du. Hitzak *argizari* eta *ola* hitzetan du jatorria. Hau da, argizarizko soka batek inguratzen duen egur zati lau bat definitzen du argizaiola hitzak. Forma antropomorfikoa dute eta ikertzaileen arabera, argizaiolek hildakoaren arimak bizitzaz haraindi izan lezakeen

balizko iraupena irudikatuko luke. Hainbat dokumentu historikok egiaztatzen dute Euskal Herrian XVI. mendea ezkerre egiten zirela, baina jatorria askoz ere lehenagokoa dela uste da.

Lotura zuzena Txirritolarekin

Barrondok dioenez, argizaiolak zerikusit zuzena du euskara elkartearen izenarekin: "Txirritola da argizaiolaren inguruan duen kandela hori. Due-la 12 bat urte hasi nintzen argizaiolak egiten, Luis Pedro Peña de Santiagoren liburu bat aurkitu nuenean. 1961etik 1964ra elizaz eliza joan zen bilduma bat egiten eta ni bilduma horretan oinarritu naiz argizaiolak egiteko".



Bisitariak Alberto Barrondoren erakusketan. | AMAIA TXINTXURRETA

LEINTZ GATZAGA

Bi begirale izango ditu aurtan ludotekak

Neska-mutikoei etxeko lanak egin ahal izan ditzaten, espazio berria egokitu dute bertan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaur, astelehena, zabalduko ditu atea ludotekak ikasturte berriari begira.

Azken urteotan moduan, 17:00etatik 19:00etara izango du ordutegia. Eskolako ohiko egutegia, berriz, funtzionatzeko oinarria.

Eta Gurel elkarteko kide diren neska-mutiko guztiei zuzendutako zerbitzua izango da. Urteko kuota ordaindu (Gurel kontu korrontean sartu behar da dirua) behar da, hori bai, ludoteka erabiltzeko.

Bestalde, aurtan, berritasunekin dator ludoteka zerbitzua.

Bi begirale

Horietako bat da bi begiralek jardungo dutela lanean, txandaka: Beñat Agirreurreta eta

Garazi Orobengoa. Biak ala biak gatzagarrak dira eta bertako ludotekan eskarmentudunak; Agirreurreta justu aurtengo udan eta iazko ikasturteko begirale izan delako, besteak beste; eta Orobengoa, lehenago ere ibili delako begirale lanetan Gatzagan.

Espazio berria

Ludotekak izango duen beste berritasuna da espazio berria egokitu dutela. Helburu bikoitzarekin: bata da leku egokia eskaintzea neska-mutikoei etxeko lanak egiteko aukera izan dezaten. Horren harira, Internet zerbitzua ere eskaini gura dute espazio horretan.

Bigarren helburua, berriz, da Gurelekoek gurako luketela gazteak ere erakartzea ludotekara.



MIKEL URIBARREN BORREGO. 2012ko heritarren saria.

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Aukeratu zure argazki gustukoena!

Irabazi otarre eder bat munduko hainbat kafe motarekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik



Eman botoa: blogak.goiena.net/argazkiak irailaren 24tik urriaren 1era

Jarraitu gaitzazu:  [udakoargazkiak](#)  [udakoargazkiak](#)

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

kb
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

KIROLA



Erik Aranburu erdilari gaztea baloiarekin. | IMANOL SORIANO



Joko trabatua izan zen tarteka. | IMANOL SORIANO



Eneko Ibarluzea (9) aurrelari gazteak maila ona erakutsi zuen. | IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

EMAITZA

BERGARA

2-2

BETI GAZTE

FITXA TEKNIKO

Bergara: Soto, Crespo, Arruti (Retes, 70. min), Urrutia, Elorriaga (Nafarrate, 67. min), Ilzarbe, Aranburu, Ibarluzea, Baltzategi (Macho, 79. min.), Diaz (Alonso, 71. min) eta Beitia.

Beti Gazte: Fontan, Otxoteko, Etxegarai, Irazoki, Olaizola, Maia, Gurrutxaga, Saralegi, Ordoki, Biurrarena eta Gurrutxaga (Sanjurjo, 45. min).

Berdinketa justua, bi taldeek maila ona erakutsi zuten lehian

- Bergara 2-0 jarri zen aurretik, baina Beti Gaztek berdintzea lortu zuen
- Baltzategik –penaltiz– eta Ibarluzeak egin zituzten etxeko golak

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA
Bergara 2-0 aurretik jarri arren, Beti Gaztek markagailuari buelta ematea lortu zuen zapatuan. Lider moduan heldu ziren lesakarrak Agorrosinera, ligako lehen

bi partiduak irabazi ostean. Talde ona dute, sendoak atzean eta aurrean oso jokalariz azkarrak. Jokin Baltzategik –penaltiz– eta Eneko Ibarluzeak egindako golak ez ziren nahikoa izan etxeko tal-

dearendako, baina futbol zelaian ikusitako jokoa eta bi taldeek izan zituzten aukerak aintzat hartuta, justua izan zen puntu banaketa. Partiduko 36. minutuan heldu zen lehen gola; Josu Diazek

egindako erdiraketa batek atzelariaren eskuan jo zuela ikusi zuen epaileak. Penaltia eta txartel horia; kanpotarrak ez ziren larregi kexatu. Jokin Baltzategik ezin hobeto jaurti zuen, 1-0.

Emozioa azkenera arte

Bigarren gola atsedendalitik bueltatu eta gutxira heldu zen: Eneko Ibarluzea aurrelari gazteak eskuin hegaletik heldu zitzaion pasea ederto gurutzatu zuen. 2-0koarekin erlaxatu egin ziren mahone-roak, eta bost minutu eskasera heldu zen Beti Gazteren lehen gola, area barruan hilda geratu zen baloi bat aprobetxatuta (2-1). Berdinketa gertu zegoela ikusita aurrera egin zuen nabarmen eta kontraerasoan Bergarak izan zuen partidua erabakitzeke aukera. Garbiena, Ibarluzeak gutxi-gatik kanpora bota zuena. Beti Gaztek ere izan zituen aukerak baina gola ez zen 77. minutura arte iritsi; gol ederra egin zuen Ander Maia erdilariak, area kanpotik zartako ederra eman zion baloiari. Azken minutuetan, nekeak eragindako hutsuneak medio, bi taldeek izan zuten lehia irabazteko aukeraren bat.

Datorren asteburuan Real Unionen aurka jokatu dute Aitor Arrateren mutilek.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak kontrolpean izan zuen Zarautz (1-0)

Joseba Irizarrek 15. minutuan egin zuen gola buruz, kórner jaurtiketa baten

J.B. | OÑATI
Aloña Mendik hasieratik bukarara kontrolpean izan zuen zapatuan Zarautzen kontra jokaturako partidua. 15. minutuan iritsi zen norgehiagokako gol bakarra, Joseba Irizarrek: kórner jaurtiketa baten buruz egin zuen gola jokalariz onatarrak. Lehen zatian izan zituzten aukera gehiago

markagailua handitzeko, baina onatarrak ez zuten asmatu.

Talde gogorra eta beteranoa

Bigarren zatian joko zuzena baliatu gura izan zuten zarautzarrek berdinketa lortzeko baina Andoni Azkargortaren mutilek ez zieten aukerarik eman: "Zarautzek talde gogorra eta beteranoa du.

Aurrealdean ez dute arrisku handirik, baina atzean oso sendoak dira. Ez da erraza eurei gola egitea eta, era berean, golak egitea kosta egiten zaie. Gu, oraingoz, iaz baino hobeto gabiltza. Izan ere, hiru partidutan lau gol sartu ditugu". Hurrengo jardunaldian Touring taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.



Joseba Irizarrek egin zuen gola zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAk eta Antzuolak kanpoan jokatu, eta puntu bakarra eraman

Husna berdindu zuten aretxabaletarrek; Antzuolak, berriz, binako berdinketa lortu zuen

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Ohorezko Erregional Mailan kanpoan jokatu zuten Aretxabaleta eta Antzuolak eta puntu bana ekarri dute Debagoienara. UDAk husna berdindu zuen Hernaniren aurka eta Antzuolak, berriz, bina egin zuen Getariako Keta taldearen aurka.

Gol aukerak UDArentzat

Nahiz eta aukera batzuk izan, golik ez zen izan zapatuko partiduan. Bi zati argi bereiztu ziren: lehenengo zatian talde aretxabaletarra gailendu zen jokoan. Joko polita erakutsi zuten jokalariek, bai, baina ez zuten inongo punturik eskuratzeari lortu.

Bigarren zatian hernanierrek menderatu zuten jokoa, baina, etxean jokatu, azpimarratzekoa da, Alberto Albistegi entrenatzailearen arabera, ez zutela gehiegi arriskatu garaipena lortzeko. Orokorrean

partidu lasaia izan zen: hiru txartel hori jaso zituen UDAk eta, esan bezala, ez zuten golik sartu.

Antzuolak, binakoa amaieran

Partidua zuzentzen hasi zen talde antzuolarra eta 15. minutuan lehenengo gola sartu zuen. Lehenengo zatia amaitu baino hamar minutu lehenago getariarrek aurre hartu zuten eta bana amaitu zuten lehenengo zatia.

Bigarren zatia zeresan handiagoa izan zuen: orduan Getariakoak ibili ziren hobeto eta 2-1koarekin jarri ziren aurretik markagailuan. Partidua amaitu baino 25 minutu lehenago, baina, Antzuolak berdintzea lortu zuen. Jokoz kanpo-koagatik balio gabetua izan zen gol bat ere sartu zuen Antzuolak. Orokorrean gol aukera askotxo izan zituzten antzuolarrek, baina berdinketa besterik ez zuten lortu.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondrak bana berdindu zuen kanpoan, Zestoaren aurka

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zestoaren aurka jokatu zuen Mondrak zapatuan, eta bigarren jardunaldian ere ezin izan zituen hiru puntuak eskuratu. 0-1 jarri ziren aurretik arrasatearrak: 44. minutuan hegaletik ateratako falta bat aprobetxatu zuen Iker Lopezek bakar-bakarrik errematatzeke.

0-1koarekin ere Mondrak izan zituen aukerak golen bat egiteko; Jon Ander Ormaetxea aurrelariak,

esaterako, zutoinera bidali zuen baloia. Baina futbolaren legeetako bat da ate aurrean barkatzen duenak ordaindu egiten duela gero, eta hori gertatu zitzaion zerrajeroei: 85. minutuan, kórner jaurtiketa baten, egin zuen bana-koa etxeko taldeak.

Partidua ikusten egon zen Jon Zabaleta jokalaria esan digunez, berdinketa justua izan zen: "Inork ez zuen irabaztea merezi izan".

Ez da hasiera onena izan

Ohorezko Erregional mailatik jaitsi berri, 2013-2014 denboraldia ez da modurik onenean hasi Mondrarendako. Oraindik ez dute garaipenik lortu -bi lehiak berdindu dituzte- baina okerrean ez da hori: taldean pisu handia izatera deituta zeuden Jon Zabaleta, Andoni Aizpurua eta Julen Losada lesionatuta daude. Azken biek belaunean hartu zuten min lehen jardunaldian.



EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Mondrako neskek 0-6 egin zuten San Juanen aurka

JOSETXO ARANTZABAL

Hasierako minutuetan parekatuta ibili ziren bi taldeak, baina San Juan talde nafarra ez zen gehiegi luzatu aurretik jartzen. Lehenengo zatia 0-2 amaitu zuten. Bigarren zatia izan zen mamitsuena, San Juanek lau golekin. Entrenatzailearen arabera, "talde gaztea" du Mondrak eta maila aldaketa nabaria da: "Urte gogor hau ilusioz hartuko dugu".

1. urteurrena ospatzeko
PROMOZIO BEREZIA

Ekarri zure lagunak eta abonuan,
%25_{eko} deskontua
aplikatuko dizuegu!

Abonatu berriak ekartzen dituen abonatuarentzat eta baita lagunentzat.

ibarra | ...**merezi**
KIROLDEGIA | **dau!**

• Markole auzoa z/g | 20550 Aretxabaleta
• Tel.: 943 03 98 42 | info@ibarrakiroldesia.com





JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA Antolatzaileek koltxoneta jarri zieten Seminarioko jolaslekuan neska-mutikoei, min hartzeko beldurrik gabe baloia jauzia eginez jaurtitzeko. Talde kirolen artean ohikoetako bat da Bergaran ere eskubaloia, azken denboraldietan Euskadiko Txapelketan ari den gizonezko seniorren taldea erreferente dela.



JOSETXO ARANTZABAL

HOCKEYA Ibargarai kalea, besteak beste, patinek hartu zuten domekan. Hanka-Labanka taldearekin izaten da Bergaran, adibidez, lagun artean hockeyan jokatzeko aukera. Lasterketetara ere joaten dira.

KIROLA KALERA

Begi onez hartu du Bergarak kirolak kaleak hartzearena

ESANAK

"Politak dira gure kopuruak, baina saiatuko gara hobetzen"

I.UGARTEBURU | KIROL TEKNIKARIA

- Herritarrak gustura ibili ziren kirol modalitate desberdinak probatzen
- 'Euskaraz bizi nahi dut' leloa herrian zabalduz amaitu zen festa

JULEN IRIONDO | BERGARA

Frontoian zumba, bosua eta pilates, besteak beste; kanpoaldean gimnasia erritmikoa ere bai. Ibargarai kalean autorik ez eta ze kirol pila: pilota, patinak, hockeya, boleibola... Eta Seminarioan beste hainbeste bai: eskubaloia, saskibaloia –egokitua ere bai–, eskalada, boccia eta abar.

Zerbaitegatik jarri zioten izena atzorako Bergarako Udalak, herriko kirol elkarteek eta Jardunek antolatutakoari *Kirola Kalera*. Jardunek ere bai, herriko hainbat kale patinetan, bizikletaz eta korrika, euskaraz, zeharkatu zituen lasterketa jendetsu batekin amaitu baitzen jaia.

Itxura polita hartu zuen eguneko azken ekintzak, han batu baitziren goizeko 10:00etatik batean eta bestean, kirol desberdinetan, askotarikoak probatzen ibilitako lagun guztiak.

Hasiera, motelagoa

Egiari zor, goizeko 10:00ak goiz xamar egin zitzaion bati baino

gehiagori, eta eguerdira gerturatu ahala joan ziren hiru gunek jendez atontzen: "Lehenengo orduan moteltxoago joan da gauza; ikasi duguna izan da hurrengoan beranduago hasi behar dugula", zioen Iñaki Ugarteburuk, Bergarako Udaleko Kirol teknikariak.

Beraz, hurrengo izan izango delakoan zen Ugarteburu ekime-

naren lehen edizioaren amaieran, helburuak bete izanarekin ziur: "Jendeari erakutsi nahi izan diogu ze aukera dauden Bergaran, eta animatu kirola egitera".

Beste behin ere erakutsi zuen domekan Bergarak herri kirolaria dela, oraingoan modu berezian, hainbat kirol une berean eta ezohiko lekuetan eginez, are kirolariago izateko gogoz: "Ditugun kopuruak oso politikak dira, baina hobetzeko aukera badago; beraz, horretan saiatuko gara" zioen Ugarteburuk.



JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOI EGOKITUA Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak utzi zizkieten gurpildun aulkiak domekarako, eta umeek izan zuten aukera saskibaloian era berezi horretan jokatu eta duen zailtasunaz ohartzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

ARETOKO KIROLAK Pilotaleku barrura, oster, normalean Agorrosinen egin ohi diren jarduerak eraman zituzten, zumba eta bosua, adibidez. Bergaran nahikoa jarduera berria da bosua, eta erakutsi nahi izan zuten jendeak ikusteko erraza eta indarra lantzeko aproposa dela. Zumba, berriz, erresistentzia lantzeko da ona.



JULEN IRIONDO

GIMNASIA ERRITMIKOA Pilotaleku aurrean ibili ziren euren ariketak egiten Ariznoa elkarteko gimnastak. Antzuolan eta Bergaran jarduten dute, eta 100 kirolari dituzte egun. Mutil gehiago nahiko omen lukete.

SARA BALENTZIAGA
PARTE-HARTZAILEA

"Jolasak ikusten ibili naiz eta eskalatu egin dut. Egunero behar luke gaur bezala. Futbolean ibiltzen naiz, eta asteburuetan patinekin".

AGUSTIN TOLEDO
DORDOKA

"Boccia kantxa jarri dugu Seminarioan, jendeak parte hartzeko eta ezagutzeko kirol paralinpiar hau. Etorri direnak oso gustura ibili dira".

A. ARETXAGA ETA J. VALLE
PARTE-HARTZAILEAK

"Jendea oso gustura ibili da. Baina denbora gutxi zegoen, eta gauza asko egiteko gogoia. Seminarioan eta hockeyan ibili gara; ipurdiko batzuk hartu ditugu. Denetik egiten dugu apur bat, disfrutatzeko".



JOSETXO ARANTZABAL

LASTERKETA Goiza amaitzeko *Euskaraz bizi nahi dut* leloarekin lasterketa egin zuten herriko kaleetan. Patinekin, korrika eta bizikletaz joan ziren parte-hartzaileak, eta hizkuntza bera izan zen irabazle bakarra.

ESKUBALOIA

Denboraldia hasteko garaipen landua Bergaran

Hasiera nahiko kaxkarra izan arren, taldeak erritmoa hartu zuen gero

EMAITZA

SORALUZE BKE

35-27

INDUPIME BASAURI

JAGOBA DOMINGO | BERGARA
Denboraldia garaipen batekin hastea beti da pozgarria, bada, horixe bera lortu dute Josetxo Muniategiren mutilek asteburuan.
Basauri izan zuten aurkari ligako lehenengo jardunaldian, eta hasiera kaxkar xamarra

izan arren, egoerari buelta ematea lortu zuten Bergarakoek. Norgehiagokako zortzigarren minutuan, markagailuak 1-5eko emaitza erakusten zuen. Hala ere, hutsarte eskatu ondoren, defentsan estutu eta atsedendira heltzeko hamar minutu falta zirenean, berdinketa lortu zuten. Defentsan gogor jarritu zuten, horrela taldearen joko azkarra egin eta markagailuan aurre hartuz. Atsedendira 15-12ko markagailuarekin joan ziren.
Aldagelatik bueltan, taldeak ideiak argiago zituela zirudien,

eta kalitatezko 15 minutu eskaini zizkieten ikusleei. Markagailuan ere zortzi goleko alde lortu zuten eta alde hori amaierara arte mantendu zuten. Azken hamar minutuetan partidua moteltzen saiatu ziren, baina badirudi Soraluze BKE taldearen indarra joko azkarrean dagoela eta ez zuten tempoa guztiz ondo kontrolatu. Hala ere, ez zuten askorik disfrutu.
Domekan, Gasteizera
Datorren jardunaldian partidua gogorra jokatu dute Gasteizen, Corazonistas taldearen aurka.



Basauriko atezaina gol bat jaso ondoren. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Lehen nazionaleko aurkariak ez dute barkatzen

Lehenengo zati parekatu baten ondoren, lehia aise irabazi zuten elgoibartarrek zapatuan

EMAITZA

ALCORTA FORNING GROUP

35-26

FORD MUGARRI ARRASATE

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE
Lehen Nazional mailan aurkari errazik ez dagoela argi ikusi zuten asteburuko norgehiagokan Ford Mugarriko mutilek. Elgoibarrera joan eta etxera

burumakur bueltatu ziren zapatuan; burumakur, baina asteburu honetan egoerari buelta emateko gogo handiz.
Partidu txarra
Hasieran lehia parekatua izan zen, bi taldeek izan zituzten aldeak txikiak izan ziren, pare bat golekoak.
Bigarren zatiko hamargarren minututik aurrera, oster, Arrasatekoei atea txiki egin zitzaion. Erasoan asmatu ez, eta defentsan ez ziren batere fin ibili.

Epailleek ere ez zuten lagundu, erabakiak ez zituztelako berdin neurtzen kantxaren alde batean zein bestean. Hala ere, Garciak argi utzi izan nahi zuen porrota ez zela epaileen errua izan, taldearena baizik.
Euren jokoa egin ezinean
Denboraldian zehar, egun txarrak izan ohi dituzte talde guztiek, entrenamenduetan eta urte osoan zehar landutakoa ez denean inondik inora ikusten. Bada, hori gertatu zitzaion zapatuan Arrasateko taldeari, kantxara guztiz blokeatuta irten ziren eta ez ziren gai izan euren jokoa egiteko.
Datorren domekan baina, egoerari buelta emateko aukera ona bat izango dute Dominicos Zaragozaren aurka. Partidua 12:00etan izango da Iturripe edo Musakola kiroldegian.



Kanpandorreti hartutako irudian, Aloña Mendi elkartearen armarría irudikatzen duen mosaikoa, zapatuan. | FELIX SANCHEZ

ALOÑA MENDI ELKARTEA

Mosaikoa, Aloña Mendik herriarekin duen "lotura estua" erakusteko

Elkartearen armarría irudikatzeko hainbat herritar elkartu ziren zapatuan

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Oñatiko herriak Aloña Mendi kirol elkartearekin duen "lotura estua" erakusteko mosaikoa egin zuten zapatuan plazan: "Behean ibili naiz eta ezin izan dut nola geratu den ikusi. Kanpandorrean egon den argazkilariak esan dit nahiko kurioso geratu dela eta argazkia ikusi barik oraindik, balorazio oso positiboa egiten dugu. Hemen pilatu den jendea ikusita, oso pozik gaude; eskerrik beroenak etorri zareten guztioi". Hitz horiek izan zituen Aloña Mendi kirol elkarteko Aratz Losadak, klubaren armarría irudika-

tzen zuen mosaikoa amaitu berri. Goizetik hasi ziren dena prestatzen: "Lurrean armarría izango zena markatu dugu eta gero arma-

rri hori kolore ezberdinekin betetzen joan gara. Horrek pazientzia eskatzen du, batez ere hasieran sartu direnendako. Kosta zaigu, baina nahiko ondo joan da dena", esan zigun Losadak.

ESANAK

"Oso pozik gaude, eskerrik beroenak etorri zareten guztioi"

ARATZ LOSADA | ALOÑA MENDI

"Herri osoa dago inplikatuta"

Era berean, helburua ekarri zigun gogora kirolzale oñatiarrak: "Helburua bakarria izan da: erakustea klubak zein dimentsio, tamaina eta garrantzia duen herrian. 15 sail ezberdin ditu uneotan eta, era batera edo bestera, herri osoa dago inplikatuta Aloña Mendi elkartearekin".



Mondra, Real eta Athleticeko beteranoak atzo, Mojategin. | JOKIN BEREZIARTUA

FUTBOLA

Athletic garaile, Mondra eta Real mendean hartuta

J.B. | ARRASATE

Jende larregi hurbildu ez bazen ere, egun berezia izan zen atzoko Mojategin. Mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldien barruan, Mondrako, Realeko eta Athleticeko beteranoek triangularra

jokatu zuten 10:00etatik 13:00etara. 45 minutuko partiduak jokatu ziren eta Athleticek lehen biak irabazi zituenez -0-1, bi lehiak-, bizkaitarrak izan ziren irabazleak. Azken lehian, Mondrako eta Realaren artekoan, Jon Muruamen-

diaratz Mondrako aurrelari ohiak etxeko taldea aurretik jarri arren -Alberto Matalobosek erdiratutako kórner bat buruz maisuki errematatu zuen-, Realekoek hiru gol sartu zituzten gero (1-3).

Gozamena jokariendako

Egun ederra izan zen jokalarientzako batez ere, berriz ere futboleko botak jarri eta euren kirolaz gozatzeko aukera ezin hobea izan zuten-eta.

SASKIBALOIA

Zarautz bere etxean 46-76 menderatu ostean, ezin hobeto hasi du liga MU-k

Josu Larreategiren mutilek "oso defentsa ona" egin zuten: "Ezin izan zuten euren jokoa egin"

J.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak erraz lortutako garaipen batekin hasi du liga. Josu Larreategiren mutilek errepaso ederra eman zion Zarauzko taldeari zapatuan: 46-76. Arrasatearrak oso ondo hasi ziren: "Partidua- ren hasiera oso ona izan da eta normalean, ondo hasten bazara, ondo amaitzen duzu". Hori bai, onartu zuen fisikoki ez daudela oraindik egon behar diren mailan: "Arlo fisikoa asko landu behar dugu oraindik".

Defentsako lan ona, gakoa

Zarautz eta MU elkar ondo eza- gutzen duten diren taldeak dira: "Taldea oso gutxi aldatu dute, jokalaria berberak dituzte. Jokalari berri bat fitxatu dute, barruko jokoan oso azkarra dena, baina ez genion bere jokoa egin- ten utzi", adierazi digu entrenatzaileak. Izan ere defentsako

lan ona izan zen garaipenaren gakoa: "Defentsa oso ona egin dugu, ez diegu euren jokoa egin- ten utzi. Azkar jokatzea gustatzen zaie baina ez diegu utzi; kontraerasoan lau puntu besterik ez dituzte egin".

Era berean, Aloña Mendirekin EBAn jokatetik datozen Imanol Zeziaga eta Gorka Kintana jokalaria arrasatearrak taldearen dinamikan sartzea falta zaiela esan digu Eskoria- tzako entrenatzaileak.

Iturriperen egoera kaxkarra

Arlo fisikoa behar den moduan ez landu izanarekin "zerikusi zuzena" ei dauka Iturripeko kantxaren egoerak: "Liga hasiera baldintzatu digu. Oso arriskutsu dago, oso labainkor. Kantxaren egoerak ez digu utzi behar den moduan lan egiten". Arrasate Eskubaloit Taldea ere kexatu da arazo berberaz.

Anastasio Duran aretxabaletarra bihotzekoak jota hil zen zapatuan Atxondoko Sorginen Lasterketan

Anastasio Duran 50 urteko aretxabaletarra bihotzekoak jota hil zen zapatuan Atxondoko Sorginen Lasterketan. Arrazola inguruan zebilela eman zion bihotzekoak eta antolakuntzaren anbulantzia bat desfibriladore batekin heldu arren, ezin izan zuten ezer egin korrikalari aretxabaletarra suspertzeko. Osakidetza- ren helikoptero bat ere bertaratu zen, baina ezin izan zuten ezer egin. Tazio ezizenez ezaguna, Aretxabaleta eta inguruko korrikalarien artean oso ezaguna zen Duran.



TXIRRINDULARITZA

XABIER URTZELAI

Martxa eta enduro irteera, bikain

Atzo egin zuten Aretxabaletako mendi bizikleta martxa eta enduro irteera. Bata zein bestea zailtasun fisiko eta tekniko altuko irteerak izan zirela ziurtatu zuten 190 parte hartzaileek. Zaila eta teknikoa, baina polita. Hor zerikusi zuzena izan du antolakuntzak, lan handia egin dute-eta basoa garbitzen. Eta, euririk egin ez zuenez, ibilbidea egoera paregabea zegoen. Ikusleak ere askotxo, kanpotik gehienak.

MENDIA

50 tontor eta 88 kilometro, Copreciren omenez

- Enpresako lau langilek egin zuten balentria aurreko astean
- Murugain, Aizkorri eta Orkatzategi igo zituzten, besteak beste



Lau protagonistak Kurtzebarrin, tontorrean, 13:15ean. | OIER ETXEBARRIA

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Hilaren 20an bost abentura-zale elkartu ziren Aretxabaletako Durana kalean: Oier Etxebarria eta Jabi eta Juanma Martinez aretxabaletarrak, Iñaki Bengoa gatzagarra eta Eneko Urrizalki arrasatearra. Helburu bakarra: Copreciren 50. urteurrena ospatzeko, Debagoieneko 50 tontor igotzea. Guztira, 88 kilometro, eta 6.000 metro baino gehiagoko desnibela. Bostek hasi zuten bidea, baina lauk bete zuten helburua: Iñaki Bengoak Landan utzi zuen ibilbidea, beste lauren erritmoari ezin izan ziolako eutsi.

Landan bat gutxiago

Durana kalean elkartu eta konaturatu orduko Muru igotzen hasi ziren. Erritmo onean eta bostak elkarrekin. Jaitsiera trostan egin zuten. Asentziara igotzen hasi aurreko bidegurutzean, Copreciren pankarta ikusi zuten eta ibilbide osoko aldaparik gogorrenari gogotsu ekin zioten. Ganboraldeko maldetan biderik gabe igo zuten lehen tontorra oinak busti zituzten. Durakogain eta Jarindo arazo barik igo zituzten, ilargiaren laguntzarekin.

Landara espero baino azkarrago heldu ziren, eta han laguntza emateko egon behar zuten lagunei abisua pasatu zieten. Maroto igotzeko, GPSaren laguntza behar izan zuten.

Landan hartu zuten lehen mokadutxoak: kakao-krema ogi-tartekoak. "Isuskitzatik Landara berehala jaitsi ginen, eta, tuneletik atera bezain pronto, animo ederrak entzun genituen. Han zeuden Asier, Pauxi, Esti eta gurasoak", kontatu digu Oier Etxebarriak.

Tamalez, baina, Iñaki Bengoak ibilbidea uztea erabaki zuen Landan. Gainerako parte-hartzaileen erritmoa biziegia zelako utzi zuen proba. "Erabaki sendoa eta, ziur aski, egokia, Landatik aurrera erritmoa jaitsi genuen arren,

korrika dezente egin genuelako", gogorarazi du Etxebarriak.

Aizkorriraino

Landatik sabela beteta irten ziren. Jarraian, Troke, Usakoetxe, Arkamo, Urkitza, Urdingain, Makatzgain eta Pagobedeinkatua igo zituzten. Leizargaraten egin zuten bigarren geldialdia. "Mallabi eta Orreaga umeekin zeudela esan ziguten, eta, argia piztuta ikusi genuenez, bisita egitera sartu ginen txabolara", diote.

Ilargia ezkutatu, eta Mugarriluzetik Aumategira bidean lainopean sartu ziren eta gailurrean denok jantzi zuten zira-Kortakogaineraino ez zuten erantzi-. Haize apur batekin eta hezetasun handiarekin Mirubixkar, Burgamendi, Sekillaga,

Gaboño, Kextui gaña, Gainlabur, Larrangoiti, Atxuintxa, Trango, Zurkuntz, Napar Basoko Punta eta Urkitza atzean utzi zituzten. "Errotak amaitzean, lasaitasuna ere sentitu genuen. Zarata dezentegiten dute", esan digute.

Oburua, Petrinaitz, Urkilla eta Oltza igo zituzten Aizkorriko aldapa gogorrei aurre egin aurretik. Igotzen hasi baino lehen atsedean hartu zuten. Goizeko bostak ziren. Ura edan eta mokadutxo hartu ostean, gorako bideari ekin zioten. Jabi eta Juanma aurretik eta Oier eta Eneko atzetik. 45 minutuko igoraren ostean, aterpetxean arropa aldatu eta kresterian barrena sartu ziren: Aitzabal, Aketegi, Aitxuri, Iraule eta Gorgomendi (Aloña).

Kresterian barrena

Lekunberri eta Aizkorritxo igo ostean, Adarraitzerako aldapa gogorrei aurre egin zieten. Artzanburura jaitsiera luzea egin ostean, Arriurdin, Urrabiatza, Akaitz eta Butreaitz igo zituzten. "Uste baino azkarrago gindoazen, eta anoa-postuan egon behar zuten lagunei abisua pasatu genien, garaiz, janaria eta edaria prestatzeko", esan digu Etxebarriak.

Kurtzezar eta Gorgomendi igo eta Kortakoagainen zeuden lagunak zain. Gustura jan zituzten Txepe-k eta Nereak egindako makarroiak. "Animatu eta egiten ari ginena izugarria zela erakutsi ziguten".

Lagunak eta etxeokak agurtu, eta Aitzulo aldera hartu zuten. Aitzulo ondoko bidexkatik igo zuten Orkatzategiko pareta.

Ur-biltegiko bidea hartu eta Ametzuetarantz hartu zuten, Hiruaitz igo aurretik. Azken horretan, galdu samar ibili ziren. Jarraitu beharreko bidea ez zegoen oso garbi.

Bidera bueltatzerakoan, Euskadi-Extrem mendi-bizikleta martxarekin gurutzatu ziren. Azken anoa-puntuan, Isidoro, Andrea eta beste bi lagun zituzten zain. Ondo hidratatu ostean, azken aldapa gogorrari aurre egiteko gertu zeuden.

Zelaikuenakoen txabolatik aurrera, Eneko hustuta zihoan; tripako minarekin. Ezin zuen ezer jan. Dena den, Elorretako haitza begi bistan ikusi eta poztu egin ziren. Asier, Olaia, Doltza, Araitz eta Iñigo zituzten zain. Kurtzeberri pozarren igo zuten eta talde-argazkia egin zuten elkarrekin gurutzean. Ibilbidea bukatzeko, Aretxabaletarainoko jaitsiera falta zitzaien. 13:15ak ziren.

Jaitsiera trostan egin zuten. Trenbide zaharretik Mitarte kalea eta handik Duranara heldu ziren. "Minduta baina pozik egin genuen azken jaitsiera. 14:00etarako heltzea espero genuen".

Mitartetik, Duranan barrena, udaletxe zaharrera laurak elkarrekin eta trostan heldu ziren. Han zeuden lagunak, etxeokak eta herritarrek animoak ematen. 88 kilometroko ibilbidea bukatzen zen lekuan jende taldea zuten zain: besarkadak eta muxuak jaso eta eman zituzten. Bizilagun batek suziria ere botatu zuen mendizaleen omenez.

Helburua beteta, Gurea tabernan ospatzeko unea heldu zen. Txepe-k xanpain botila atera zuen, eta, txapeldun handien antzera, botila astindu eta topa egin zuten, lortutako balentriarengatik.

Ondoren, gorputzeko musku-luak erlaxatzeko tartea hartu zuten. Masajistaren eskuetatik pasa ostean, lau protagonistek etxerako bidea hartu zuten, atsedeen hartzeko asmoarekin.



Murura heltzen, 20:00etan.



Isuskitzako monumentuan, 22:45ean.



Kurtzezarretik Gorgomendira bidean, 09:30ean.



Elorretatik Kurtzebarrira, 13:30ean. | OIER ETXEBARRIA

KULTURA

Musikaz gozatzeko aukera berriro Kooltur Ostegunekin

- Eguenean, Maritxu Kajoi bezperan, hasiko da aurtengo programazioa
- Urrian bost kontzertu egongo dira; betiko moduan, astero talde bat

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Herritar asko Maritxu Kajoiaren zain egongo dira egunotan, baina musikazaleek eta talde berriak ezagutzeko grina dutenek irrika berarekin hartuko dute Kooltur Ostegunak ekimenaren itzulera. Eta dagoeneko ez dute askorik itxaron beharrik, egunean izango da-eta 2013-2014 ikasturteko lehen kontzertua.

Iker Barandiaran Kooltur Ekintza taldeko kideak azaldu duenez, "ekimenaren eskema ez da aldatuko: beti izango da ostegunetan, 22:00etan puntual, ikuskizun bakarra eta prezio berean, bost eurotan. Berdin da taldea famatua edo ezezaguna den, prezioa beti izango da bera".

Ekimenaren martxak ez du berrikuntzarik izango baina badira nobedade txiki batzuk: "Gaztetxean erabiltzen dugun agertokian aldaketa txiki batzuk izango dira, ez dira aipagarriak baina bertaratzen direnek ikusiko dituzte". Gainera, ikasturte honetan, emanaldien kartelaren diseinua berriro egin dute, Barandiaranen esanetan "noizbehinka egin behar delako".



Lobo Electrico taldearen kontzertua, iaz Kooltur Ostegunaren aurrekari gisa egindako Kooltur Asteburuan. | GOIENA

Laugarren ikasturtea

Kooltur Ostegunak duela lau urte inguru sortu zen, Arrasateko hainbat musikari herriko kultura eskaintza indartzeko Kooltur Ekintzak taldean batu zirenean. Kulturako adierazpide ezberdinei, ez musikari bakarrik, aukera bat ematea zuten gogoan.

Gaztetxearekin elkarlanean, soinu ekipo bat erosi zuten eta hori izan zen euren helburua lortzeko lehen pausoa. Pixkanaka, urteotan kontzertuetan gaztetzeko tabernan lortutako diruarekin joan dira ordaintzen ekipoa. Baina kultura bultzatzeko gogoak hor jarraitzen du eta, ondorioz, baita Kooltur Ostegunek ere.

Musika eskaintza askotarikoa da eta, Barandiaranek adierazi duenez, "fuerte hasten eta bukatzen" saiatzen dira, "talde ezagunekin". Oraingoan, hasi, Capsula taldearekin hasiko dira eta zerekin amaitzen duten maiatzean ikusiko da.

Kontzertuez gain, bestelako eskaintza izaten saiatzen dira eta hainbat antzezlan ere ikusi ahal izaten da gaztetxean.

Urteetako ahaleginari esker, beste helburu bat ere lortu dute: "Gaztetxea beti gazteekin lotutako gune bat da, baina ikusi dugu Kooltur Ostegunetan batez besteko adina igo egiten dela". Jendea ohiko ez zaien gunera erakarri dute, beraz.

Azaroa eta abendua

Kooltur Ostegunak oraindik ez dira hasi, baina azaroko eta abenduko programa lotzen ari dira dagoeneko eta, adibidez, bigarren edizioan egon ziren Who the Bitch taldea itzuli egingo da. Santa Rita eta Glaukoma ere iragarri dituzte datozen hilabeteetarako.

Urriko kontzertuak Iker Barandiaranen ahotik



CAPSULA Urriaren 3an.

Argentina.
Rock and roll
Hirukoa Bilbon bizi da orain dela askotik eta atzerrian gehien jotzen duen Euskal Herriko taldea da. Oso talde indartsua da eta rocka lantzen du, askotariko estiloan. Zuzeneko oso landua du eta *Solar Secrets* diskoa kaleratu berri du.



THE HOT WOK Urriaren 10ean.

Gasteiz.
Funky, jazz, nahasketa.
Kooltur Ostegunetako lehen edizioan egon zen eta Arrasaten oso harrera ona izan zuen. Funkya eta jazz lantzen ditu, baita bi horien nahasketa ere. Oso musika dantzagarria egiten du, parrandarako gogoia pizten duen horietakoa.



BIDE ERTZEAN Urriaren 17an.

Tolosa.
Pop rock.
Pop rocka euskaraz egiten ia aitzindari izan zen. Hainbat disko ditu eta kideak proiektu bat baino gehiagotan ibiliak dira. Trantsizio garaia kontatzen duen 77 disko monografikoa dakar. Hiruko gisa joko dute eta kontzertu dotorea izango da.



SUPER SWEET Urriaren 24an.

Donostia.
Rock.
Señor No, Chico Boom edo Fivelives taldeetan ibilitako jendea dago hiruko honetan. Rock gitarreroa egiten du, oso dotorea eta pop asko duena. The Who-ren *Tommy* diskoaren tributua den ikuskizunarekin dator gurera.



CORREOS Urriaren 31n.

Donostia.
Pop.
Popetik dator baina power popa, pop gitarreroagoa ere egiten du talde honek. Elektronika ere lantzen du, baxu distorsionatuarekin. Irudimenez eta inurri lana eginez, ezagun egitea lortu du taldeak eta zenbait lehiaketa irabazi ditu.



Korrupted Brothers bikotearen saioak itxi zuen Seminarioko karpa berriko egitaraua. | IMANOL SORIANO

Bergarako I. Elektronika Topaketa "ederto", bigarren baterako animoso

Kogollo Party Crew taldekoak "pozik" agertu dira zapatuko jaialdiarekin

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA
Elektronikaren kultura Bergarako herrira hurbiltzeko asmoz, Kogollo Party Krew taldeak Bergarako Elektronika Topaketa antolatu zuen zapatuan Udalaren babesarekin. Hiru gunek jarri zituzten: Zabalotegi aretoa, Seminarioko karpa berrian eta gaztetxean. Eguna "ederto" joan zela esan zigun Josu Arteaga antolakuntza taldeko kideak: "Semina-

rioko karpa betetzea zaila da baina, amaierako azken saioetan batez ere, jende askotxo ibili zen. Gauean, berriz, gaztetxea erabat bete zen". Lehen aldia izateko antolakuntza lan handia suposatu duela aitortu digu Arteagak: "Denbora gutxiki ibili gara, baina lan handia izan arren nahiko ondo moldatu garela esango nuke. Hurrengorako prestatzen gabiltza dagoeneko".

Euskal Herrikoak gehienak
Aramaio. Txistu irakasle bat behar da datorren ikasturterako Aramaion. Interesatuok deitu telefono honetara: 605-74 80 87 / 945-44 54 84.

Aretxabaleta. 1. DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Trukean, etxeko garbitasunak egin edo umeak zainduko nizkioke. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki hone-tara: 659-62 02 49.

Durangeldea. Ingleseko klase partikularrak jaso nahi ditut goizetan. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki hone-tara: 605-73 41 80

Ingelesa. Ingeleseko eskolak hartuko nituzke, unibertsitate-ko ikaslea naiz. Arrasaten, eskoriatzan edo aretxabaletan. Interesatuak deitu ezazue tele-fono zenbaki honetara: 636-05 36 18.

502. EMAN

Atxondo, Elorrio, Durango. Hezkuntza berezian eta haur hezkuntzan diplomatua dagoen 24 urteko neska bat naiz, momentuan psikomotri-zitatea ikasten ari dena. Ega tituluduna eta ingeleseko b1.2. Arekin. Lan experientziarekin. Egunean zehar, umeak zain-tzeko prest eta baita hezkuntza arloan laguntza emateko pos-iibilitatearekin. Mugikorra: 645-71 0248. Garazi.

Atxondo, Elorrio. Hezkuntza bereziko eta Haur Hezkuntza-ko irakaslea klase partikularrak emateko prest. Lan experien-tziarekin bai hezkuntza forma-lean baita eskolaz kanpokoan ere. Klase indibidualizatuak, etxez-etxeokoak. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 645-71 02 48. Garazi.

Bergara. Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu bergaran. Inter-esatuak deitu ezazue ondoko telefono zenbaki honetara: 636 -16 30 10.

Bergara. Ingeles eskolak ema-ten ditut: maila guztietan eta adin guztietarako. Talde txikiak. Cambridge eta heo azterketak prestatzeko ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 618-91 32 89.

Bergara. Eskola partikularrak emango nituzke Lehen hezkun-tzan, lehenengo mailatik 6. mailara arte. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki hone-tara: 943-76 14 14 / 618-39 03 74.

Durangeldea. Neska euskal-duna batxilergoarekin eta admi-nistrazio titularekin, etxeeetan eskolak emateko prest. Tel.: 662 -36 41 67 / 94-681 89 40.

Durangeldea. Neska bat, ekonomian lizentziatua eta DBH eta batxillergoan irakasle izate-ko masterduna, klase partikula-rrak emateko eskaintzen da, LH,

DBH zein batxillergoan. EGA eta First tituluekin. 635-74 67 98

Durango. Lehen Hezkuntza bukatzeaz dagoen neska euskal-duna etxeeetan eskolak emateko prest dago. Esperientziarekin. Tel.: 628-83 27 10.

Durango. Eskola partikularrak ematen ditut astelehenetik larunbatera. Hizkuntzak: eus-kara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta latina. DBH-n esperientzia. Filologian lizen-tziatua eta EGA titulua daukat. Tel.: 605-74 77 99.

Eibar. Alemanierazko eskolak ematen ditut. Metodo erraz eta atsegina. Ikasle-trukeak eta azterketen prestaketa. Heo. Eibarren. 670-79 33 12.

Eskola partikularrak eta euskara. Haur hezkuntzan diploma eta psikopedagogian lizentzia duen esperientziadun neskak, ikasketak teknikak irakas-ten ditu eta eskola partikularrak ematen ditu Lehen hezkuntzan eta DBHn. Honetaz gain, euska-ra irakasten die haur zein helduei. Eskoriatzan, Aretxabaletan edo Arrasaten. Interesatuok deitu konpromiso barik: 646-62 05 15 / 943-25 06 12.

Ikasteko teknikak. Ikastaro trinkoa. 90 minutuko 10 saio. Ikas ezazu hobeto ikasten eta praktika itzazu metodo egokiak. Talde dinamika estimulagarri eta dibertigarriak. Gutxienez sei laguneko taldeak. Adina: 10 urtetik 17ra. Bergaran, Arrasaten eta Oñatin. Deitu zenbaki hone-tara: 634-59 55 94.

Oñati. Klase partikularrak ematen ditut, LHko edozein ikasgai. 672-25 91 89.

Villabona. Ingleseko eta fran-tseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituloduna. Hizketaldiak, azterketak, lehen-dibiziko eguna proba moduan izanik, gero zuk erabaki. Tel: 664 -16 02 68.

Villabona. Klase partikularrak ematen diramatematika, fisika, -kimika, eta inglesa. Taldeka edo bakarka. Ingenieritzan tituludu-na. Telefonoa 664-16 02 68 eta continental56@yahoo.es.

.

503. BESTELAKOAK

Alemaniera-Euskara trukea. Alemaniera eskolak ematen ditut euskarazko eskolak jasotzearen truke. Deitu 18:00etatik aurrera, mesedez. 61779 85 00

6. MOTORRA

601. SALDU

Toyota rav4 autoa salgai. 2010. Urteko Toyota rav4 (4x4) autoa salgai. 44.000 kilometro. Prezioa: 25.000 euro. 615-70 12 25.

Volkswagen polo salgai. Egoera oso onean. Aukera ezin hobea, 2.000 eurotan. 618-72 11 29.

602. EROSI

Mobilete bila. Mobilete bat hartu, trukatu-bateria elektriko edo gitarra akustiko bategatik, adibidez- edo erosiko nuke, prezio onean. Deitu 615 734 553 telefonora.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astakumea. Urte eta erdiko astakumea emea salgai. Asto mantsoa eta etxean hazia. Pre-zio telefonoz kontsultatu. Axun. Interesatuok deitu 943791751

edo 676 20 59 19 telefono zenbakietara.

Txintxillak salgai. Txintxillak salgai. Emea zuria da eta arra bioleta kolorekoa. Emea hardun dago. Umeekin egotera ohituta daude. 50 euro gehiagogatik, urtebeterako janaria emango nuke, dendan baino askoz mer-keago. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 634 -77 84 58.

703. EMAN

Mastin mestizoa. Bi urteko mastin mestizoa, emea. Txikia da. Uso maitagarria. Atean lotu-ta egotera ohituta. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki hauetara: 943-76 37 58/ 608 -03 51 93.

Perikitoak. Perikito bikote bat ematen da opari. Arra berdea eta emea horia. Kaiola ere oparitzen da. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 943 -71 82 74/ 685-75 31 29.

Txakurkumeak oparitzen dira. Leongo mastin arraza-ko kumeak oparitzen dira. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 646-76 68 74.

Txakurkumeak. Ardi txakur-kumeak ematen dira Urbiako Fondan. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki hone-tara: 943 78 13 16

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakurra galdu Mea-tzerrekan. Arratoi txakur beltza eta gaztea galdu da Arrasateko Meatzereka auzo inguruetan. Mesedez, inork ikusiko balu, eskertuko nuke telefono haue-tariko batera deitzea. Eskerrik asko, aldez aurretik. Argazkia: http://bit.ly/18kD6pJ Interesa-tuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 629 42 25 84 edo 669 13 31 71

Txakurra galduta Bergaran. Zapatuan, abuztuaren 24an, arratoi txakurra galdu zen San Martzial auzoan. Marroia da, gaztea eta arra. Lepokoa darama, kaskabel txiki batekin. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki hauetara mesedez: 943 76 37 58 edo 608 03 51 93

8. DENETARIK

801. SALGAI

Diseinurako mahaia salgai. Diseinurako mahaia salgai, arkitekura eta delineaizio ikas-leentzat aproposa. Prezio oso onean. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 656 -73 77 79.

Goodyear eagle f1 195/50/ r15 82 v neurriko bi gurpil salgai. Gutxi erabiliak dauden Goodyear, eagle f1 markako bi gurpil ditugu salgai 195/50/r15/ 85v neurrikoak. Biak 50 eurotan saltzen dira. Informazio gehia-gorako deitu 686-89 77 32 telefono zenbakira.

Ohe biko litera salgai. Ohe biko egurrezko litera eta koltxoiak salgai (2120x970) egoera onean. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 695 -74 00 25.

Roomba 531 salgai. Oso gutxi erabilitako roomba 531 saltzen dot 150,00 eurotan. Interesatuak dei ezazue hurren-go telefonora. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 637-41 64 38.

Triziklo berria salgai. Triziklo berria salgai, 98 euro kostatu zitzaidan eta 65 eurotan dago salgai. Interesatuak deituezazue telefono zenbaki honetara: 634 -77 84 58. Berri-berri dago.

Errepiderako zapatilak behar ditut, 45 neurrikoak.

Errepiderako zapatilak behar ditut, 45 neurrikoak. Ibiltzen hasteko besterik ez ditut behar. Zaharrak eta merkeak badira, hobe. Interesatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 660 -43 64 29.

Mendiko bizikleta erosiko nuke. Mountain bike moduko bizikleta erosiko nuke, parrilla eta gurpi babesleduna. Inte-resatuak deitu ezazue telefono ondoko zenbaki honetara: 617 -21 89 74.

803. EMAN

Taka-taka bat eman nahi dugu. Ezinduentzako taka-taka bat eman nahi dugu. Behar duenak deitu diezadala. Inter-esatuak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 676-78 50 67 (Juan Antonio).

806. GALDU

Betaurrekoak Urbian. Joan zen larunbatean, irailaren 21ean, galdu nituen urbian eguzkitarako betaurreko gra-duautak. Aurkitu dituenak deitu dezala, mesedez, zenba-ki honetara: 669-15 64 02 / 943-76 31 01.

Brotxea galdu. Irailaren 7ko gauean zilar koloreko brotxea galdu nuen. Bi borobil bateratu-tako itxura du. Balio sentimen-tala dauka eta eskertuko da. Aurkitu dituenak deitu dezala, mesedez, zenbaki honetara: 690-73 64 16.

Eskumuturreko bat galdu dut. Bertan honako hau dago idatzita: Jone 1971-06-24. Norbaitek aurkituko balu, buel-tatzea eskertuko nioke, mesedez. Garrantzitsua da. Eskertu egin-go da. Aurkitu dituenak deitu dezala, mesedez, zenbaki honetara: 634-43 36 97 (Jone).

Peruko boligrafoa (Cusco). Opor hauetan bereziki perutik ekarritako boligrafoa galdu dut Aretxabaletako Lausitta eta Errekabarren kaleko inguruetan. «Cusco» jartzen du eta kolore-tsua du. Norbaitek jaso badu mesedez deitu, eskerrik asko. 616-62 18 70.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

75 urteko emakumea adis-kidetasu bila. 75 urteko emakume arglunak, antzeko adineko baiona, biarritz, donos-tia edo inguruko gizon nahiz emakumeekin adiskidetasun bat bilatzen du, pasieran ibiltzeko, museoetara joateko, hizketan aritzeko. (0034) 697-23 28 83 (Marisol).

Autoa konpartitu (Arrasate -Elgoibar ibilbidea). Aste-lehenetik ostiralera Arrasatetik Elgoibarrera joaten naiz lanera autoan. Arratsaldez irten eta gau ez itzultzen naiz Arrasatera. Elgoibarren lan egin edo IMHko ikasle bazara, adibidez, bidaiaren gastuak konpartitzeko prest nago zurekin. 600 77 05 56

Jende berria ezagutu. 35 urteko neska gipuzkoarra. Jende jatorra ezagutu nahi dut adiskide berriak egin eta aktibitateak par-teketatzeko: zinema joan, txangoak egin,...,ortzimuga@hotmail.

Mutil at

Steam, egongelaz jabetzeko gertu

Edukien banaketara bideo-joku kontsolen bitartez txertatu gura da Valve enpresa ezaguna

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Bideo-joku kontsolen mundutik dator ordenagailu eta eramangarrien sistema eragileen munduan sartu gura duen lehiatzaile berria. Helburua da "egongelarako" sistema eragilea deritzon eremuaz jabetzea; oraingoz industriak erantzun garbirik eman ez dion eremua baita izan. Valve bideo-joku diseinatzaileak SteamOS delako sistema eragilea aurkeztu du. Sistema eragile horrekin bideo-jokuen banaketa digital sistema bat proposatzen da baina aldi

berean edukien banaketarako kanalak ere ezartzen dira, *de facto*. Steam Box delako hardware-a izango da ardatza, edozein fabrikatzailearen esku dagoena, CES 2013 erakustazokan aurkeztu zutena. Planteamendu berdina mahaigaineko ordenagailuetara eta gailu eramangarrietara eraman gurako lukete Valve-ekoek.

Egongelara erasoa

Aisialdi digitalean eta zehazki bideo-jokuen munduan duten



Steam zerbitzuak dakarren kaxetako bat. | ALT 1040

esperientzia luze eta arrakastatsuaz baliatu gura dute Valve-ekoek. Egongelako aisi digitalean gaur egun bideo-joku kontsolek dute nagusitza eta posizio horre-

tatik edukien banaketaren industrian sartzea da estrategia. Steam-ekin kontsola izango dute eta baita ere bideo-joku askoz ere merkeagoak, Internet bidez bana-

tuko baitituzte, bitartekari barik eta, hala, ordenagailu baterako ere balioko duen sistema eragile batekin, bete betean sartu edukien banaketan.

Aplikazio bidez ordaindu ahalko da urtariletik aurrera Bilboko TAO-a

Mugikorretarako aplikazioa eskuragarri jarriko dute ordainketak egiteko

J.B. | ARRASATE

Mugikor ala Internet bidez ordaindu ahalko da Bilboko TAO sistema datorren urtean. Paperezko ordainagiria inprimatu barik, erosotasunez eta azkartasunez iOS eta Android sistema eragileendako prestatu dute aplikazioa erabili ahalko da. Zerbitzua bera kudeatzen duen enpresak, Gertek-ek, sortu du aplikazioa eta urte amaieran ipiniko dute doako deskargan. Madril eta Bartzelonan uda honetan abian ipini duten sistemaren antzerakoa da Bilbon hilabete gutxi barri ezarriko dutena. Erabiltzailearen aurretiazko erregistroa eskatuko da eta ordainketa kreditu txartel bidez egingo da, aplikazio barruan.

Ordenantza aldaketa

Ordainketa birtuala lehenago ez ezarri izanaren arrazoia ez da izan erantzun teknologikoaren falta, legeak berak utzi ez duelako baizik. Bilboko udal ordenantzak orain arte ez zuen ordainagiri birtuala kontenplatu eta behin Udalak ordenantza aldatuta, sistema birtuala ezarri ahal izan dute TAO-aren ordainketarako. Orain, ordainketa egiaztatzeko ez da egongo zertan paperezko erreziboa autoaren aginte-mahaian laga. Sistema berriarekin batera, aplikazioaz gain, TAO-eko webgune berria estreinatuko du Udalak.

Funtzionamendua

Aurreratu dutenez, erabiltzaileak behin autoa aparkatuta duenean, mugikorrean aplikazioa ireki eta GPS bidez kokapena hartuko du sistemak. Autoaren matrikula



Bartzelonako aplikazioaren bi pantaila-irudi. | APP STORE

zenbakia idatzi eta sistemak jasotako datuak (ordua, lekua eta halakoa) zuzenak direla baieztatuta, ordainketa digitala gauzatu da. Informazio hori bera TAO zaintzaileen eskuko gailuetara helduko da eta matrikula zenbakia sartuta, jakingo dute agenteek autoak ordaindu duen ala ez. Erabiltzaileak, baimen epea gainditutakoan dagoen lekutik luzatu ahalko du denbora. Gainera, sistema berriak ahalbidetuko dio erabiltzaileari, parkingetan bezala, egindako denbora zehatza ordaintzea.

Antzerako sistemak

Bartzelonako sistema hartuko da ziurrenik Bilbon eredu moduan

nahiz eta erabaki irmorik oraindik ez dagoen. Orain dela aste gutxi estreinatu zuten Kataluniako hiriburuan mugikor bitartez kontrola daitekeen TAO ordainketa sistema, esate baterako. Udaletxeak jarri du martxan eta sistema horrek aparkatuta egiten den minutu bakoitzaren-gatik ordaintzeko aukera ematen du, hau da, autoak aparkatuta egindako denbora zehatzarengatik ordaintzen da bakarrik. Android eta iOS sistementzako bertsioa atera dute. Erabiltzaileek, hori bai, lehenik eta behin sistema erregistroa egin behar dute eta baliozkoa den kreditu txartel baten zenbakia eman beharra dute hasteko.

Ahantzura eskubidea izango dute adin txikikoek Kalifornian epaileen erabakiz

J.B. | ARRASATE

Adin txikikoen ahantzura esku-bidearen aldeko neurri zorrotzak hartuko dituzte Kalifornian. Europar Batasunean ez bezala, epaileek han berretsi egin dute erabiltzaileek Interneteko zerbitzu hornitzaileei datuak ezabatzea eska dakiekeela, modu berezian, adin txikikoak tartean daudenean. Lege berria onartu dute Estatu Batuetan eta 2015etik aurrera adin txikikoek

Interneteko konpainiei haien sareko jarduera ezkutatzeko eskatzen badiete, agindua bete egin beharko dute. Lege berriaren testuan aipatzen da nerabezaroan egindako hutsegiteak bizi guztirako gera daitezkeela gordeta sarean eta hori ekiditea da legearen nahia. Legea, noski, soilik adin txikikoentzako da baliagarria eta konpainiak informazio hori eremu publikotik kentzea eskatzen da.

Musika streaming-ak diskoetxeen diru-iturri nagusi moduan finkatzen jarraitzen du

J.B. | ARRASATE

Musika industriaren diru iturri nagusienetakoa bilakatzen dabil streaming bidezko entzuketa. Espainiako Estatuko 2013ko lehen sehirekoaren datuak eman dituzte jakitera eta hazkundeak bere horretan jarraitzen duela frogatu dute azken datuek. Hala, Spotify, Rdio, Deezer eta antzerako zerbitzuen bitartez musika entzunda, 10 milioi euro

baino gehiago ordaindu dute erabiltzaileek urte erdi honetan. Iazko epealdi berdinarekin konparatuta hazkundea %19koa izan da. Doan entzundako musikari dagokionez, publizitate sarrera moduan jasotzen da eta 6,1 milioi eurokoa izan da, iaz baino %11 gehiago, hain zuzen. Industriaren gainontzeko sektoreek uzurtze prozesuan jarraitzen dute, halere.

Aireratze eta lur-hartzeetan gailuak erabili ahal izatea aurki baimentzekotan dira

J.B. | ARRASATE

Abiazioaren Administrazio Federala arautegia aldatzea aztertzen dabil zenbait hedabideetan jakinarazitakoaren arabera. Hala, e-reader, musika erreproduzitzaile eta antzerako gailuak lur-hartze eta aireratzeetan erabiltzeko galarazpena kentzekotan dira elektronikako enpresa handien kexuei kasu

eginez. Aurrera egitekotan, datorren urtean baimentzea da litekeena, zabaldu denez. Gailuok interferentzia elektronikoak eragiten dituzteneko frogargirik ez dagoela diote eta eskatu dute arautegia aldatzea. Honekin batera, gero eta aerolinea gehiago dabilta hegazkin barruan konexio bereziak eskaintzen gailu hauentzako.

TELE-BEGI



OIHAN VEGA

Txakurkeriak

Cuatro katea, azkenaldian tematu egin da gizarteari erakusten nola hezi behar ditugun gure inguruko guztiak. Familia osoa.

Haurrak hezten *Supernanny* saioarekin ikasi dugu, nera-be gaizto eta traketsak bideratzen *Hermano mayor* programari esker, eta orain, txakurrak ere ikasi behar dugu hezten *Malas pulgas* izeneko beste sasi saio batekin.

Horren gaizki egiten ditugu ba gauzak? Ez al gara gai gure kabuz mendeetan zehar arbasoek egin dituzten gauzak burutzeko? Teknologia berriekin tenteldu egin ote gara?

Hori gutxi balitz, Cesar Millan mexikarrak ere saio bera jarri zuen martxan AEBn eta orain Cuatrok gaztelerara itzuli du bere *Encantador de perros* delakoa. Eta horrekin ere eskasa baldin bada txakurren heziketaren inguruan gizarteak behar duen informazioa, beste programa bat ere estreinatu berri du Cuatrok: *El líder de la manada*.

Norbaitek azal diezadala, faborez, zer dela eta behar ditugun horrenbeste txakur kontu telebistan.

Txakurkeriak nahi dituenak jar ditzala albistegiak; bi hankakoak, hori bai, baina txakurrak azken batean.

ASTEA GOIENAN				
GOIENA TELEBISTA				
ASTELEHENA 30	MARTITZENA 1	EGUAZTENA 2	EGUENA 3	EGUBAKOITZA 4
				
'Harmailatik'	'Magazinea'	Bertso txapelketa	'Planik bai?'	'Jaiak'
Zapatuan, Bergara eta Beti Gazte futbol taldeek partidua jokatu zuten eta horixe jasoko dugu gaur. 21:20	Imanol Gallego Zinemaldian izan da eta jaialdiaren gainean arituko da biharko saioan. 20:10	Bertsolari Txapelketa Nagusia hasi zen atzo eta Goiena telebistak txapelketa osoa eskainiko dizue. 21:20	Mireia Bikuñiak eman-go digu astebururako bailaran iragarrita dau-den kultura ekitaldien berri. 17:35	Aretxabaletako San Migel jaien inguruko saio berezia eskainiko dugu Goiena telebistan. 21:45
12:00 Magazinea 12:45 Kantari 13:15 AsteON 13:45 Artearen ibilbidea 14:15 Onein 14:38 Zorion Agurrak 14:45 Berriak 15:15 Eguraldia 15:18 Zorion Agurrak 15:23 AZK2012 15:53 Bideo-iritzia 16:31 Zorion Agurrak 16:38 Berriak 17:08 Eguraldia 17:11 Onein 17:33 Zorion Agurrak 17:38 AsteON 18:08 Altxorren bila 18:34 Ur eta lur 19:04 Berriak 19:29 Eguraldia 19:32 Kantari 20:02 Zorion Agurrak 20:06 Magazinea 20:51 Berriak 21:16 Eguraldia 21:21 Harmailatik 22:06 Berriak 22:31 Eguraldia 22:34 Magazinea 23:19 Gurean gaur	12:00 Magazinea 12:45 Harmailatik 13:25 Kantari 13:50 Onein 14:13 AsteON 14:45 Berriak 15:10 Eguraldia 15:13 Harmailatik 15:58 Onein 16:20 AsteON 16:50 Berriak 17:15 Eguraldia 17:18 Ur eta lur 17:48 Harmailatik 18:33 Artearen ibilbidea 19:03 Zorion Agurrak 19:08 Berriak 19:33 Eguraldia 19:36 Kantari 20:06 Zorion Agurrak 20:10 Magazinea 20:55 Berriak 21:20 Eguraldia 21:23 AZK2012 21:53 Berriak 22:18 Eguraldia 22:21 Magazinea 23:06 Gurean gaur 00:37 Gurean gaur	12:00 Magazinea 12:45 Onein 13:09 Kantari 13:39 AZK2012 14:09 AsteON 14:39 Zorion Agurrak 14:45 Berriak 15:10 Eguraldia 15:13 Klaketa 15:54 Harmailatik 16:39 Zorion Agurrak 16:44 Berriak 17:09 Eguraldia 17:12 Harmailatik 17:52 Onein 18:22 Klaketa 18:52 Zorion Agurrak 18:57 Berriak 19:17 Eguraldia 19:20 Bideo-iritzia 19:40 Asmatu baietz! 20:10 Magazinea 20:55 Berriak 21:20 Eguraldia 21:22 Bertso Txapelketa Nagusia 22:22 Berriak 23:07 Eguraldia 23:37 Magazinea	12:00 Magazinea 12:50 Onein 13:13 Kantari 13:43 AZK2012 14:13 Bideo-iritzia 14:40 Zorion Agurrak 14:45 Berriak 15:10 Eguraldia 15:13 AZK2012 15:43 Zorion Agurrak 15:48 Altxorren bila 16:14 Ur eta lur 16:44 Berriak 17:09 Eguraldia 17:12 Onein 17:35 Planik bai? 17:55 AZK2012 18:25 Altxorren bila 18:55 Berriak 19:25 Eguraldia 19:30 Kantari 20:00 Planik bai? 20:25 Zorion Agurrak 20:30 Berriak 20:55 Eguraldia 20:58 Planik bai? 21:18 AsteON 21:48 Jaiak 22:48 Planik bai? 23:08 Berriak 23:33 Eguraldia 23:36 AsteON	12:00 Planik bai? 12:20 Magazinea 13:05 Kantari 13:30 Bideo-iritzia 13:55 AZK2012 14:25 Planik bai? 14:44 Berriak 15:09 Eguraldia 15:12 AZK2012 15:42 Bideo-iritzia 16:12 Zorion Agurrak 16:18 Planik bai? 16:42 Berriak 17:07 Eguraldia 17:10 AZK2012 17:40 Bideo klipak 18:00 Artearen ibilbidea 18:30 Planik bai? 18:50 Zorion Agurrak 18:55 Berriak 19:25 Eguraldia 19:30 Kantari 20:00 Planik bai? 20:25 Zorion Agurrak 20:30 Berriak 20:55 Eguraldia 20:58 Planik bai? 21:18 AsteON 21:48 Jaiak 22:48 Planik bai? 23:08 Berriak 23:33 Eguraldia 23:36 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Josu Larreategirekin egingo dugu berba gaur aurtengo helburuez

MU saskibaloi taldeko entrenatzailea da Josu Larreategi eta gaur arituko gara berarekin solasean Arrasate Irrati-kook. Berbaldia, taldeak aurtengo denboraldirako duen helburuaren gainean izango da batik bat. Solasaldia entzun nahi baduzue, FM 107,7-an izango duzue aukera.

Kooltur Ostegunerako bi sarreraren zozketa egingo dugu astero

Asteon hasiko dira Kooltur Ostegunak Arrasaten eta, hau ospatzeko asmotan, Arrasate Irratian bi sarrera zozketatuko ditugu astero, irrtiaren beste aldean dauden entzuleen artean. Capsula taldea izango dugu lehen egunean: Iker Barandiaran antolatzaileak azalduko ditu xehetasunak.

Maritxu Kajoi egunaren azken ordukoak 'Igo autobusera' saioan

Urtero legez, urriko lehen egubakoitzean ospatuko da txikiteroen festa handia eta, arrasatear askoren pozerako, lau egun besterik ez dira falta. Maritxu Kajoi egunaren gaineko azken ordukoak kon-tatuko ditugu Arrasate Irra-tian, *Igo autobusera* saioan; beraz, egunean egon nahi baduzue, egin bat.

Geu ere Oñatiko eta Aretxabaletako San Migeletan egongo gara

Gaurko 'Magazinea' eta egubakoitzeko 'Jaiak' saio berezia eskainiko dizkiegu San Migel jai

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE
Iritsi dira aurtien ere San Migel jaiak Debagoienera, zehazki, Oñati eta Aretxabaletara.

Jai hauen inguruan, Goiena Telebistak bi saio eskainiko ditu: gaurko *Magazinea* eta egubakoitzeko *Jaiak* saio berezia.

Txomin Madinak aurkeztu-tako Magazinea saioan, astebu-ruan bi herriotan izandakoen berri edukiko duzue, guztia iru-dietan jasoa.

Oñatin, pasa den zapatuan egin zen txantxiuaren jaitsie-rarekin hasi ziren jaiak. Atzo

egin zen Oñatiko Udal Musika Bandaren kontzertuko irudi batzuk ere eskainiko dizkizuegu. *Zuk ekarri, zuk jan* lelopean anto-laturiko bazkarian izango gara gaur, baita arratsaldeko sokamu-turrean ere.

Aretxabaletan, jaiak hasteko, egubakoitzeko kantu afarian izan ginen. Zapatuan azokan eta talo txosnan izan ginen goizean eta, arratsaldean, Beinke-Loramendi dantza emanaldian. Atzo eguer-dian jokatu ziren herri kiroletan ze giro zegoen ikusi ahal izango duzue, baita arratsaldean egin

TELE-ALBISTEAK



Umeak Aretxabaletako zapatuko azokan. | IMANOL SORIANO

San Migeletako azoka, emanaldiak zein kontzertuak erakutsiko ditugu

zen kontzertua ere, Aretxabaleta Abesbatzarekin.

Urriaren 11n, Oñatiren txanda
Esan bezala, egubakoitzean saio berezia eskainiko du Goiena tele-bistak San Migel jaien inguruan.

'Jaiak' saioan ez da, ordea, Oñati-ko San Migeletako edukirik izango, Aretxabaletakoak baka-rrik.

Datorren asteko egubakoitzean emano dugu Oñatiko jai

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Gari Martin Izurategi
Urriaren 5ean, 8 urte.
Zorionak, Gari! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Lukenen, amatxoren eta aitatxoren partetik, muxu handi bat, txapeldun!



ARRASATE
Ekhi Arriaran Zubillaga
Urriaren 4an, 3 urte.
Zorionak! Ondo ospatu egun berezi hau. Patxo bat danon partetik.



OÑATI
Igor Varela
Urriaren 3an, 6 urte.
Zorionak denon partetik.



ARETXABALETA
Aimar Gorosabel Velez
Urriaren 2an, urtebete.
Zorionak eta patxo handi bat aitatxoren, amatxoren eta lkerren partetik!



ARETXABALETA
Mara Sarasua Ezkurra
Urriaren 2an, 2 urte.
Zorionak, poxpolintxo! Beti berezia izango dugun egun honetan, etxeko guztion eta zure ahizpa den lhintzaren partetik, pozez beteriko eguna opa dizugu.



ARETXABALETA
Manex Beltran de Heredia
Urriaren 1ean, 11 urte.
Zorionak! Irribartxo goxo hori ahoan duzula ondo-ondo pasatu zeure eguna! Muxuak etxekoon partetik.



ESKORIATZA
Saioa Uribe Barandiaran
Urriaren 1ean, 11 urte.
Hamaika ilusio betetzeko oraindik! Zorionak, pinguino!



ANTZUOLA
Amets eta Oinatz Larrea Garitano
Ametsek irailaren 29an, 4 urte eta Oinatzek urriaren 1ean, 2 urte. Zorionak, artistak! Muxu handi bat etxekoen partetik eta ondo pasatu!



ARRASATE
Izaro Tena Azkarraga
Irailaren 28an, 3 urte.
Zorionak, polit hori, etxekoen eta familia guztiaren partetik. Ondo pasatu eta patxo potolo bat. Mua!



OÑATI
Manex Juaristi Vega
Irailaren 28an, 7 urte.
Danbor hotsekin jai giroan zure eguna ospatzeko irrikaz. Zorionak, txapeldun! Zure familiaren partetik.



ARRASATE
Aitor Urtubi
Irailaren 28an, urtebetetzea. Zorionak familia osoaren partetik!



ESKORIATZA
Maren Markaide
Irailaren 27an, 11 urte.
Zorionak potxola! Ondo ondo pasatu egun honetan eta 11 belarri tirakada. Muxutxu handi bat etxeko guztien partetik. Muak!



ARRASATE
Ane Delgado Ugarte
Irailaren 27an, 13 urte.
Zorionak, Ane! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Elaia Akizu Arenaza
Irailaren 27an, 3 urte.
Zorionak, Marimatraka! Mila kilo patxo eta besarkada estu-estu bat etxekuon partetik. Sorgin samarra zara baiñe, holaxe gure zaugu.



ARAMAIO
Eki Balantzategi Fdz. de Arroiabe
Irailaren 27an, 10 urte.
Zorionak, printzesa! 10 urtetzar beteko ditzuzu! Ondo pasatu zeure egunien! Patxo handi bat Uxue ahiztiaren eta Xantieta Nuria gurasuen partetik.



ARRASATE
Ane Kortabarria
Irailaren 27an, 17 urte.
Zorionak, potxola! Ondo pasatu eguna eta behar den moduan ospatu! 17 patxo handi Almenetik!



ARETXABALETA
Oskitx Lagunilla Agirre
Irailaren 27an, 8 urte.
Txapeldun. Zorionak! A zelako ondo pasatu genuen zure egunean! Jarraitu beti bezain alai eta saltsero! Muxu handia etxeko guztien partetik.



OÑATI
Oier Igartua Urteaga
Irailaren 26an, 6 urte.
Zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetze eguna etxekoen partetik. Sei muxu potolo: papapa!



ARETXABALETA
Hodei Caballero Rodriguez
Irailaren 26an, 3 urte.
Zorionak! Badira hiru urte zure begirada urdintxo horrek sorgindu gintuela! Ondo pasatu eguna. Besarkada pottolo bat etxekoen partetik.



DEBAGOIENA
Oinatz Anduaga Estrada
Irailaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat etxekuen partetik.



ARRASATE
Beñat Gamito Bengoa
Irailaren 25ean, 10 urte.
Zorionak etxekoen partetik. Mundiala zara!



ARRASATE
Jon Zubia Carrasco
Irailaren 24an, 4 urte.
Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna eta muxu asko amatxoren, aitatxoren, Danelen eta familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Unax Urtubi
Irailaren 23an, 4 urte.
Zorionak, moñoño. Muxu handi bat etxekoen partetik eta ondo pasatu zure familia osoarekin.



OÑATI
Gorka Alzelai Billar
Irailaren 23an, 2 urte.
Oso ondo pasatu eguna eta merendola ederra preparatu astelehenian. Familia danaren partetik, zorionak!



OÑATI
Izar Ugarte Muñoz
Irailaren 23an, 5 urte.
Zorionak, Izar! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Uxue Montalvo Ruiz de Egino
Irailaren 23an, 5 urte.
Zorionak, Uxue! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat Peruren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Monika Beltran de Heredia
Irailaren 22an, 9 urte.
Zorionak, printzesa! Sorgintxo galanta zara baina halaxe jarraitu beti! Laztan handi bat etxekuon partetik.



ANTZUOLA
Danel Rodriguez Jauregi
Abuztuaren 9an, 2urte.
Zorionak, Danel, zorionak, pitxin. Aitatxo, amatxo, Xuban eta familiaren partetik, musu handi bat.



BERGARA
Naia Gabilondo Kapelastegi
Irailaren 29an, 4 urte.
Zorionak, potxola! Aitatxo, amatxo, June eta familia osoaren partetik, muxu potolo bat eta ondo pasatu zure urtebetzea.



ARETXABALETA
Maier eta Joanes Agirre Aldalur
Irailaren 27an, 5 urte.
Zein azkar egin zareten handi! Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bana. Muaka!



OÑATI
Elene eta Manex Cristobal Berrikano
Irailaren 23an, 2 urte.
Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetze egunian. Muxu pila bat Marenen, Hegoiren eta lparren partetik. Ondo pasatu eguna!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkari tzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Xuban Arana Gutierrez
Aramaio. 3,100 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Itxaso eta Adei. Argazkian, Xuban jaioberria amarekin.



Enaitz Zubia Guerikabeitia
Oñati. 3 Kilo. Irailaren 26a. Gurasoak: Eneritz eta Asier. Argazkian, Enaitz gurasoekin.



Nathalia Perez Lami
Oñati. 3,380 Kilo. Irailaren 26a. Gurasoak: Tany eta Carlos. Argazkian, Nathalia jaioberria amarekin.



Jakes Vitoria Ayastuy
Arrasate. 3,030 Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Lutxia eta Julian. Argazkian, Jakes jaioberria sehaskan.



Ekhi Arregi Baseta
Oñati. 3,590 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Alaia eta Aitzol. Argazkian, Ekhi gurasoekin.



Telmo Orue Juaristi
Arrasate. 3,870 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Mireia eta Oskar. Argazkian, Telmo jaioberria amaren besoetan.



Irene Arrizabalaga Gonzalez
Aramaio. 3,450 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Iratxe eta Asier. Argazkian, Irene jaioberria sehaskan.



Izadi Uribarren-Iturrieta Elices
Arrasate. 3,200 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Mari Mar eta Andoni. Argazkian, Izadi jaioberria gurasoekin.



Ibai Zaitegi Fernandez
Bergara. 3,850 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Amaia eta Martin. Argazkian, Ibai jaioberria amarekin.



June Arrese
Aretxabaleta. 3,480 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Oihana eta Jon. Argazkian, June jaioberria gurasoekin.



Oihan Castillo Romero
Arrasate. 3,310 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Eva eta Mikel. Argazkian, Oihan amaren besoetan.



Irene Pereira Bilbao
Bermeo. 3,100 Kilo. Irailaren 20a. Gurasoak: Naia eta Fernan. Argazkian, Irene gurasoekin.



Enaitz Marhena Eguren
3,120 Kilo. Irailaren 21a. Gurasoak: Josune eta Diego. Argazkian, Enaitz aitarekin.

Urraburua

1,75

€/aleko

Eskaintza baliagarria urriaren 2ra arte

JAIOTZEN ATALAREN BABESLEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

* Antzuolako auzoa

Ez militarra

Bidezkoa da

Makarrak

Osagai bat-ez osatuak

Hizkuntza zahar

Laborarien lanabes

Musika nota

Atsegin

Ondorioa izan

Garrantzi txikiko

Deitzeko tresna

Ezen

Ipar EH-n, era

Artsenikoa

Potasioa

Kanpo, landa

Bokala

Lehenen-goia

Urania

Ponpa

Presa sartu

Artsenikoa

Lehenen-goia

Urania

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

U	L	V	K	V	S	E	R	d
				V	G	V	H	
K		V	R	V		E	Z	E
V	N	I	R	R	I	X	L	
N	I	G	V	R	E		I	S
U	L	E	K	V	l		V	
K	V	l	E	Z				
V	l	I	B	I	Z			
B		Z		l				

BILA-BILA 7

AI, ENE!

Zer hautsiko du: lepoa, sudurra ala eskuak?

Argazkia atera osteko segundoak dira kasu honetan interesa pizten dutenak. Seguru protagonistak ondo gogoratzen dituela!

www.sarda.es



AHOBERO

"Egia esan, niri berdin zait Messik lapurretan egiten duen; ni Barçakoa naiz!"

MIGUEL | BARTZELONAREN JARRAITZAILEA

Ogasunari lau milioi euroko iruzurra egitea leporatzen diote Messi Bartzelonako jokalaria, eta egubakoitzean deklaratu zuen epaitegian. Kanpoan ehun zale inguru zituen, asko txaloka, autografo eta argazki eske. Mundua hankaz gora?

www.elpais.com

EGURALDIA



Max. 24°

Min. 13°

Zerua hodeitsu egongo da. Noizbehinka zaparradak. Hego-mendebaleko haizea, zakar.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-09-30

HAMARREKOA

Anje Duhalde Bere garaian Errobi eta Akelarrekin eta egun bakarka, nork ez du Arrangoitzekoa entzun? laz ateratako 'Ibilean' zuzeneko diskoa du azkena; oraindik ibili badabilenaren aldarrikapena | TXOMIN MADINA

"Errepikatzearen beldurra dut, asko arduratzen nau"

1. Bozkatzeko adina izan aurretik hasi zinen musikan. Denerako beti hain azkarra?

Horrelakoak ez dira aukeratzen; afizioa txikitatik sortu zitzaidan. Nire nerabe garaia, 60ko hamarkada, bazen gauzak egitekoa: irekiera izugarria, rock-and-rollaren sorrera... Ez da azkartasun kontua, egoera zen horrelakoa.

2. Orduan pentsatzen al zenuen egun ere musikan ibiliko zinenik?

Ez, naturaltasunez gertatu da. Neure buruari ez diot horrelakorik gehiegi galdetzen: gauzak naturalki etorri direnez, naturalki doaz. Baina nire aitak ere 40 urte eman zituen lanean, eta ez dute horregatik aipatzen.

3. Egungo gazte batek zure abestiak dakizkiela ikustean, zer?


Poz izugarria, baina baita harri-dura apur bat ere; ez diot logika zehatzik aurkitzen. Baina askoz hobe horrela izatea!

4. 2006az geroztik ez duzu estudioko diskorik atera.

Formatua apur bat pasatuta dago, ez da diskorik saltzen: norbaitek abesti bat gura badu, klik batera du. Presarik ere ez dut, uste dut nire kopurua bete dudala! Inspirazio falta? Batez ere errepikatzearen beldurra; asko arduratzen nau.

5. Zein izan da zuk erosi duzun azken diskoa?

Guraso magrebtarrak dituen Stromae belgikarrarena: fusio oso polita egiten du, interesgarria.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Egin behar dena lana da"

"Nire bizkarretik urte batzuk kendu, hasteko! [barreak]. Ez dut magian sinesten, egin behar dena da lana; gure helburuetara heltzeko inork ere ez digu ezer emango, geuk lortu behar dugu. Katalunian, Eskozian edo Flandesen gertatzen ari denarekin kurioso nago, eta guk ere gure lekuan egin behar dugu".

6. Eta euskal musikan egin duzun azken aurkikuntza?

Jon Basagurenen Izaki Gardenak taldea. Emanaldi bat izan nuen berarekin eta sorpresa handia izan da niretzat: gaztea izan arren, sekulako segurtasuna du agertoki gainean.

7. Nola deskribatuko zenuke Iparraldeko egungo musika?

Hegoaldekoa bezala, lainopean. Lehen gertatzen zenaren kontra, Iparraldea gero eta gehiago dago Hegoaldera begira. Badira gauza oso interesgarriak: Willis Drumond, Maialen Errotabere... Mugimendua bada, baina ez laguntzarik.

8. Iparraldea eta Hegoaldea, duela hogeit urte baino gertuago edo urrunago daude?

Gertuago; politikoki ez, baina kulturalki bai. Iparraldekoentzat, lehen, espainolak afrikarrak bezala ziren... Baina hori leundu, bukatu da: gero eta gehiago doaz Hegoaldera ikastera, lanera...

9. Musikari baten egunerokoan bada errutinarik?

Begi ezberdinekin ikus dezakezu: musikariarentzat, kontzertuak ematea, beti berdina jotzea, errutina bihur daiteke. Bizia musikaren inguruan egin dut azken 40 urteetan eta ez naiz aspertu.

10. Iraganari begira edo geroari so, zertan ikusiko zaitugu gehiago?

Geroari so eta iraganari begira. Iraganaren zama bizkarrean duzu, baina beti egin behar da aurrera.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Udazkena eta... mamuak

Udazkena iritsi da bere freskotasun gozoarekin, basoak magia umelean murgilduz. Paisaia, kolore berde, okre, urte eta gorrixkaz blai ageri zaigu. Baina gure egunerokotasunean, basoen koloreok ilun dakuskigu, besteak beste, krisi ekonomikoaren eraginez, bake biderako adiskidetzeta elkarbizitza adostasun eza-gatik, eta, zer esanik ez, estatus politiko berriaren aurrean sortuz doazen iskanbila eta talken ondorioz.

Beste mamu bat datorkigu baina Espainiatik, pentsioen erreforma; gogorra, maltzurra, eta hamarkadetan gure izerdiarekin lortu duguna egun batetik bestera suntsituko duena.

Aitaren Etxean jarri ditza-gun begiak eta ez kanpoan, hasi gaitezen gure arbasoek erakutsiak erabiltzen, kon-dairak dioen bezala:

"Eta Ama Lurrak Eguzkilore landarea (Legebiltzarreko eta Batzar Nagusietako egoitzetako atarietan jarri beharko litzateke) egin zuen, espiritu gaiztoak, sorginak, lamiak, gaixotasunaren jeinuak, mamuak, ekaitzak eta tximistak uxatzeko eta giza-kiok babesteko".

Eguzkilore bakearen eta garapenaren irudia da.

KONEKTATU UDAZKENENKOA MODAREKIN

el Boulevard



Zatoz urriaren 5era arte El Boulevardera eta parte hartu gure lehiaketan, 1.000 euroko sari bat irabazi dezakezu BOULEVARD DIRUTAN! Sartu gure facebook orrian eta jakin ezazu nola izan zaitezkeen irabazle <https://www.facebook.com/elboulevard>

